

## Joseba Madariaga

2050 urterako pentsio sistemaz aritu da  
KULTURA, 8



## Mondrak eta UDAk 0-0 egin dute etxean

Aloña mendik etxean 0-1 galdu du Urolaren aurka  
KIROLA, 12-13

## Alejandro Franco

Nazioarteko xake maisua da  
KIROLA, 19



# Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko urriaren 9a • 3. urtea • 117. zenbakia • 0,90 euro

## Osasun Mentalaren Munduko Eguna

Bihar, urriak 10, Osasun Mentalaren Munduko Eguna da. Hori horrela, Fedefesek –buruko gaitotasuna dutenen eta haien senitartekoen Euskadiko federazioak– gizarateak osasun mentalak duen garrantzia azpimarratuko du. *Osasun mentala: prebentzioa eta kontzientziatzea* leloa aukeratu du eta, hain justu, prebentzio neurrien garrantziaz eta lege egokien beharraz jabearazi nahi du gizaratea.

Era beran, Agifeseak –Gipuzkoako elkarteak– ibar osoko buruko gaixoei eta haien familien beharrei erantzuteko bulegoa Bergaran –Irizar jauregian– duela ekarri nahi izan du gogora. Baita boluntario beharrea daudela jakinarazi ere. **7**

## MUren ikasturte irekiera

*Ibarretxe lehendakariak irekiko du gaur eguerdian Oñatin* **9**

## Ehizarako postuak zozkatzen dihardu Aldaipek Eskoriatzan

# Ritxar Fernandez lehena Soraluze-Bergaran

*Oñatiarrak 30'20"-ko denbora egin zuen. 222 korrikalarik hartu zuten parte herri krosean*

**MAILA HANDIKOA**  
Aurtengo lasterketa azkarra izan da eta korrikalarien maila iazkoa baino hobea izan dela diote antolatzaileek

**GAZTETXOAK ERE FIN**  
Korrikalari gazteenak alebin eta infantil mailetan ibili ziren. 1000 eta 1500 metroko lasterketak egin zituzten

Erantzun bikaina izan zuen Antxintxikak atzo antolatutako Soraluze-Bergara II. Herri Krosak. Hamar kilometroak egin behar izan zituzten lasterkariek eta 222 parte har-

**ARANTXA ALDALUR**  
Lasterkari azpeitiarra izan zen lehen emakumea helmugara heltzen. 39'14"-ko denboran egin zuen ibilbidea

**OMENALDIA**  
Zendutako Jose Luis Fernandez Bergarako korrikalariari omenaldia egin zioten antolatzaileek, Antxintxika taldekoek

tzaileek maila ona erakutsi zuten. Lehenak helmugaratzen Ritxar Fernandez oñatiarra eta Arantxa Aldalur azpeitiarra izan ziren. Giroa ere apartekoa izan zen atzo Bergaran. **16-17**



JOSETXO ARANTZABAL

Ionut Zinca errumaniarra heldu zen bigarren Ritxar Fernandezekin atzetik.

30 URTEURERENA

Ford Focus Trend TDCi 115 ZP **150 €-gatik hilean\***, 36 kuotatan.  
Sarrera: 3.462,69 €. Azken kuota: 9.002,40 €. UTB %6,70 (Prever Plana bane).

**MUGARRI AUTOAK**  
Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

**ARKAUZ**  
GRUPO ARKAUZ  
ARETXABALETAKO 1950-2006 ARRASATE

**ARKAUZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETAKO

**ETXE 10-BEL**  
ALTZARIAN  
Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE

**ARKAUZ**  
COCINA INTEGRAL  
Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETAKO

**ARKAUZ**  
BUCLES  
Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETAKO

Etzeko arropak ondo zaintzeko asmotan? Hilar ezazu tarte bat eta... Arkauz etxetresna elektrikoekin lotu egingo duzu.

**Arkauz zure etxea da.**  
expert banatzaile ofiziala

# GEUREAN

- Micaela Portilla historialaria omendu zuten atzo aramaiorrek Untzila auzoan | 4
- Intxaurtxueta auzoan elbarriendako egokitutako etxebizitza zozkatuko du Eskoriatzako Udalak | 9

Atzo Altsasun izandako elkartasun jaiaz jardun dugu Maite Aristegirekin | 5

## TXIKITEROEN JAI HANDIA

MARITXU KAJOI | JENDE UGARI BATU ZEN PLAZAN MIRARIAREN ZAIN, SIRIMIRIAK EZ ZUEN-ETA FESTA IZORRATU

# Maritxuk Abiadura Txikiko Trena ekarri zuen Arrasatera

*Maritxuk ekologisten aldekoa dela argi utzi zuen egubakoitzean egindako mirariarekin*

*AHTaren kontrako trena azaldu zen plazan eta zerutik mezu bat bota zuen Maritxuk, naturaren aldekoa*

Goreti Elortza

Urtero moduan urriko lehenengo egubakoitzean ospatu dute arrasatearrek txikiteroen zaindariaren festa nagusia.

19:30etarako Arrasateko plazara jende asko ari zen hurbiltzen eta 19:45etarako plaza eta ondoko kale guztiak jendez gainezka zeuden, mirariaren zain. Gazteek betetzen zituzten lehenengo ilarak. Jende asko ikus zitekeen dotore jantzita, adin guztietako jendea. Hala ere, jantzi dotorea gauean bakarrik jantzen dutenak ere asko dira.

Eta heldu zen Maritxuren miraria, eta berezia izan zen oso. Iragartzen zuen eskapularioko marrazkiak zerbait aurtengoan...

Arrasateko banda jotzen hasi zenean tren bat sartu zen plazan, AHTaren kontrako karteekin. Abiadura Txikiko Trena ekarri zuen herrira aurtzen mirariak. Erdiko Kaletik poliki-poliki sartu zen plazara ATT. Segidan, zerutik papertxo batzuk bota zituen Maritxuk. Hauetan, *Beste abiadura batean bizi nahi dugulako, AHTrik ez!* mezua jartzen zuen.

Mirariarekin argi gelditu zen Maritxu ez dagoela *Euskal Y*-aren proiektuarekin batere ados. Ekologisten alde agertu zen egubakoitzean txikiteroen zaindaria. Herriarentzat trena nahiko luke Maritxuk, baina herria puskatu gabe.

Plaza guztiak gogoz abestu zion *Maritxu nora zoaz* bere zain-

dariari. Barrutik eta kanpotik bustita, lehenengo ilaretan bulzakadak izan ziren nagusi.

### ESKAPULARIOAK SALTZEN

Komisiokoez hiru gune desberdinetan jarri zuten eskapulariok saltzeko mahaia; plaza ondoan, arbolapetan eta Seber Altube plazan. 1,5 euroko salneurrian ehunaka saldu zituztela esan zigun komisioko kide batek. "Trajearekin batera joan behar du eskapulariok. Ohitura handia dago herrian".

Gainera, aurtzen, garrantzia berezia izan du eskapulario atzean marraztutako irudiak eta ondoan zegoen esaldiak. Sagu bat ageri zen Udalaiz jaten, eta *Harrobi eta zuloekin dirudizu gaztaia, guk nahiago dugu natura eta jai!* zioen ondoko esaldiak.

Urtero hartzen du egunerokotasuneko gai bat Maritxuk

**Eskapularioko atzeko aldeak miraria iragarri du aurtengoan**

**Modak aldatzen doaz, eta koloreek gero eta presentzia handiagoa dute jantzi dotoreetan**



Plaza jendez gainezka zegoenean egin zuen Maritxuk miraria. ATT ekarri zuen Arrasatera.

miraria egiteko, eta aurtzen, nola ez, puri-purian dagoen gaiaren inguruko miraria egin du txikiteroen zaindariak.

### ASKARIA ABAROAN

400 bat nagusi batu ziren Abaroa Elkartekoek urtero antolatzen duten askarira egubakoitz arratsaldean. 18:30ean ardo baso eta txorizo ogitarteko bana eman zieten hurbildutakoiei. "Urtero etortzen gara, ideia ona da guztiok elkartu eta giro onean egoteko", esan zigun Antoniok. "Oso ona dago guztia baina ezin da errepikatu, hori da pena bakarra", adierazi zuen barre artean.

### IKAS BIDAIARAKO LAGUNTZA

San Vitorreko ikasleek Maritxuren egun handia aprobetxatu zuten ikas bidaiara joateko dirua lortzeko. Otarretan eurek diseinatutako loreak banatu zituzten, trukean borondatea eskatuz. Eta asko saldu zituzten, loreak aproposak ziren-eta jantzi dotoreak laguntzeko, edota ile apaindegian egindako mototsa apaintzeko.

### OHITURAK ALDATZEN

Arrasate dotore jantzen da egun handian. Batzuek betiko kolore beltza ateratzen dute kalera, baina gero eta gehiago dira kaleak

jai giroz betetzen dituzten koloreak. Gorria, berdea, urre kolorea... atzean gelditu dira goitik behera beltzak ziren soinekoak. Mutilek ere hartu dute lekukoa eta koloredun gorbatak hasi dira erabiltzen.

Orokorrean aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili da aurtzen Maritxutan herritarren iritiz.

Bestalde, udaltzainek adierazi dutenez nahikotxo dira asteburuan hara hurbildu diren herritarrak. Telefono mugikorrak, diru-zorroak eta argazki kamerak bota dituzte faltan gehienek.

JOSETXO ARANTZABAL

TXIKITEROEN JAI HANDIA

• MARITXU KAJOIREN OMENEZKO JAI IRUDITAN



Goizean goiz elegante jantzita irten ziren kalera herriko hainbat koadrila. Bazkaria egin zuten gehienek.



Maritxuren irudipean kantuan jardun zuen Arrasateko mutil koadrila honek Aramaion bazkaldu ondoren.



Brindisa egin zuten Maritxuren omenez Sara jatetxean.



Hurrek ere ohitura jarraitzen dute.



Jendez gainezka zegoen plaza Maritxuren mirariaren zain. Gazteenek hartu zituzten lehenengo ilarak.

• KOADRILEK KONTATU ZIGUTENEZ...



DEBAGOIENDAR KOADRILA |  
ARRASATE, ARETXABAETA ETA BERGARA

**"Hirugarren urtea da bazkaria egiten duguna, gehienok jai eskatzen dugu egun guztia aprobetxatzeko"**

Bergarako Jam Aretoan egin zuen bazkaria debagoiendarrez osatutako koadrila honek. Hirugarren urtea da txikiteroen egunean bazkaria egiten dutela, "koadrilako gehienok jai eskatzen dugu egun handian, urtean behin da- eta!", adierazi zuen Arrasatekoak. "Urtero egiten dugu bazkaria eta lekua beti aldatzen dugu. Arrasaten ez dugu egiten, bete-beteta egoten da dena-eta".



NESKA-MUTIL KOADRILA |  
ARRASATE ZUMARRAGA ETA LODOSA

**"Aurten egin dugu bazkaria lehenengo aldiz, baina aurrerantzean jarraituko dugu egiten, ondo egon da!"**

Maritxuren mirariaren zain aurkitu genuen festarako gogoarekin koadrila hau. Zumarraga eta Lodosako lagunak etorri ziren egubakoitzean euren Arrasateko lagunekin festa egitera. "Festa oso kuriozosa iruditu zaigu, etortzen garen lehen aldia da-eta. Ea eguraldiak laguntzen digun...", esan zigun Lodosatik etorritako bikoteak. Datorren urtean ere etorriko omen dira...



MARITXUTAN BETERANOAK |  
ARRASATE ETA GASTEIZ

**"Afaria egiten dugu urtero aspaldiko lagun koadrilarekin, aurten Luciaren etxean egingo dugu"**

Urtero etortzen dira Gasteizko lagunak Arrasateko jai handira. "Ez dugu miraria ikusi, euria zela eta tabernan sartu gara eta pena handia eman digu galtzeak", esan ziguten Gasteizkoek. "Afaria egiten dugu urtero, baina ez dugu jatetxeetan egiten. Oso garestia da eta lekua hartzeko oso zaila da... Iaz elkarrean egin genuen eta aurten, berriz, Luciaren etxean egingo dugu", esan ziguten.

OMENALDIA | HISTORIALARI GARRANTZITSUA UNTZILLAN IBILI ZEN MAISTRA

# Micaela Portilla gogoan izateko plaka erakutsi zuten atzo Untzillan

*Aramaiion ere arrastoa utzi zuen historialari aparteko eta pertsona kutun moduan*

*Haren senitartekoen hunkituta eta eskertuta kendu zuten irakaslearen omenezko plakaren oihala*

Jon Berezibar

Aurten Aramaioko Untzilla auzoko jaietan akordu berezia izan dute herriko lagun oso kutun batekin. Atzo, Micaela Portillaren omenezko plaka inauguratu zuten Untzillako elizan. Merezitako omenaldia izan zuen Gasteizko irakasle eta historialariak; izan ere, hark Arabako zein Aramaioko ondare historikoa eta artistikoa gordetzeko egindako lana balio handikoa izan da. Auzotar eta herritar ugari egin zuten bat omenaldiarekin. Herriko dantzari txikiek ere egin zuten saio berezia.

Historialari lanetan egindako lana lehen mailakoa bada ere, Aramaiorekin harreman sentimentalagorik ere bazuen. Izan ere, 1945 urtean maistra izan zen Untzillan eta herrian arrastoa utzi zuen Gasteizko irakasleak; askok gogoan dituzte oraindik herrian egindako lan eta ikerketak.

Iaz hil zen 83 urte zituela Micaela Portilla eta atzo haren omenezko elizkizuna ere egin zuten. Elizan bertan Portillak egindako lan eskerga ekarri zuten gogora argazki bitartez. Tartean Aramaioko ondarea ere erakutsi

zuten bideo-montaje batekin. Herritar eta Udal ordezkariak gain, bertan izan ziren Jabier Retegi, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria eta Jose Mari Velez de Mendizabal idazle aramaiarra. Portillaren senitartekoak ere izan ziren Untzillan eta hunkituta kendu zioten historialariaren omenezko plakari oihala.

Ekitaldia dantzari txikien saioarekin amaitu zen, bertaratuokoen txalo zaparradarekin.



Untzillako eliz atarian dago Micaela Portilloren menezko plaka.

J. B.

## • HERRITAR UGARIK EGIN ZUEN BAT OMENALDIAREKIN



### ELIZKIZUN EDERRA.

Untzillako eliza bete egin zen Micaela Portilla hil zeneko lehen urteurrenean, historialari eta irakaslea gogoan izateko. Bixente Goikoetxea abesbatzak bikain girotutako elizkizun ederra izan zen eta amaieran Araba eta Aramaioko ondare artistikoa batzen zuen bideoa eman zuten, Gasteizko historialariaren lan handiaren erakusle.

Elizkizunaren ostean erakutsi zuten omenezko plaka eta aureskua egin zioten.

### Esandakoa

"Hark egindako lana nekez berdinu daiteke, ez Euskal Herrian, Europa mailan ere asko zor zaie bere ikerketei. Langile fina eta maila handikoa izan zen bera".

EMILIO PEREZ |  
ABADEA

## Jump 2006 industria diseinu sariak erabakita

*Fagorrek eta MUk Internet bidez sustatutako nazioarteko lehiaketak gazteen lana bultzatu nahi izan du*

A.G.

Epaimahaiak erabaki berri ditu Fagorrek eta Mondragon Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzarekin eta BAI berrikuntza agenziaarekin elkarlanean sortutako Jump 2006, gazteendako nazioarteko industria diseinu sariketa

tako irabazleak. Hala, proiektu berritzaileenaren saria Lander Ugarte eta Ainara Atorrasagastik jaso dute *Air Screen* lanarekin; proiektu ausartenaren saria Yan Wu-k jaso du *Microwave* lanarekin eta proiektu orijinalaren saria Anders Landstonek eroan du *Rent A Kitchen* lanarekin. Proiektuok [www.fagor.com](http://www.fagor.com) helbidean ikus daitezke.

Lehiaketaren lehenengo edizioa izan da eta bultzatzaileek sortu dute gazteen artean industria diseinua bultzatzeko eta etxe tresna elektrikoaren arloan irudimena askatzeko. Lehiaketa erabat birtuala izan da 20 herrialdeko 220 proiektu jaso dituzte.



Nazioarteko diseinadore eta arkitektoek, Fagorreko ordezkariak eta MUko irakasleak osatu dute epaimahaia.

ASTELEHENKO GOIENKARIA



JOSETYO ARANTZABAL

Urteroko Nagusien bazkaria egin zuten zapatuan Aretxabaletako kiroldegian. 300 bat lagun elkartu ziren.

## Umorerik ez zaie falta Aretxabaletako erretiratuei

*Salda, Basotxo elkartean; meza, parrokiari eta bukatzeko, bazkaria polikiroldegian dantzaldi eta guzti. Egun borobila nagusiena*

G.E.

Urtero moduan erretiratuen eguna ospatu zuten zapatuan Aretxabaletan. Udalak urteak dihardu erretiratuak omentzen eta aurten urtero bezala erantzun bikaina izan du ekimenak.

Salda Basotxo erretiratuen elkartean hartu ondoren parrokiara joan ziren nagusi asko, meza entzutea. Baina parrokoa agertu ez eta sakristauak eman behar izan zuen meza. Bazkarian Jesus Ortiz de Urbina parrokoak azaldu zigun gertatutakoa. "Etxetik irten eta igogailu barruan gelditu naiz ordu bete inguru. Horregatik ezin izan dut gaur meza esan" zioen barreka Aretxabaletako parrokoak. "Bazkarirako atera naute behintzat", bukatu zuen parrokoak.

Kiroldegian egin zuten bazkaria. Guztira 300 bat lagun animatu ziren eta ederki jan zutela aitortu ziguten. Cadreita herriatik (Nafarroa) etorritako Irene janari-etxeak sekulako menua prestatu zuen zaturako. Frijituak, ajoarrieroa, langostinoak, entsalada eta bildotsa jan zuten nagusiek, eta postrerako tarta izoztua eta izozkia izan zuten. Mirari Aiastui gizarte laguntzaileak esan zigun moduan "oso pozik gaude, jendea gustura egon da eta. Aurten, erretzea debekatu dutela eta ez ditugu puruak banatu urtero moduan. Erretzaileek kanpora irten behar izan dute...". Beste aldaketa bat ere egin dute aurten antolatzaileek. "Urtero zozkatzen dugu zer bait, baina aurten oparia emango diegu guztiei", azaldu zuen Mirari Aiastuik.

Juan Luis Lekunberriren musikarekin askotarikoak dantzatu zituzten nagusiek. Arinarina eta fandangoa dantzatzera animatu zenik ere egon zen.

Ez dute umore faltarik nagusiek. Arratsaldeko 18:00ak arte luzatu zen dantzaldia.

Urtero omentzen dituzte gizon eta emakume nagusienak eta aurten ere horrela egingo dute. "Bazkarira ez dira etorri, baina etxera eramango diegu oparia. Zaharren egoitzetara ere pastelak bidali ditugu, etorri ezin diren zatzat"esan zigun Mirarik.

### • GUSTURA IGARO ZUTEN EGUNA



**OPARIEKIN POZIK.** Maria Candela, Emiliana, Iluminado eta Santosek bikain pasatu zuten eguna. "Aurtengoa izan da urte onena, ederki jan dugu eta dantzara ere animatu gara", zioen laukoteak. "Aterkina eta lupa bat oparitu digute aurten", kontatu zigun Emilianak.

**UGARTE**  
AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean  
•  
Horma armairuak  
•  
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

**IRIARTE**

Umeen  
denda  
•  
Helduen  
lentzeria



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

Altsasun egindako elkartasun jaiarekin pozik dago Maite

Aristegi. Jaitik bueltan berekin hitz egiteko aukera izan genuen.



ARTXIBOA

MAITE ARISTEGI | 18/98+ TALDEKO KIDEA

## "Auzipetuek zigor aurreratu bat jaso dute"

Jon Berezibar

### Pozik jasotako erantzunarekin?

Oso. Laguntza ekonomikoa lortzea zen helburetako bat eta oso erantzun ona egon da. Gainera elkartasun egunak alor politikoan aldarrikapen bat du eta sozialki auzipetuei babesa eman zaie. Epaiketa hau xahuketa izugarria izaten dabil auzipetuentzat. Helburu guztiak bete dira eta oso pozik egoteko moduan gaude. 8.000 lagunetik gora behintzat batu gara uste dut, lehengo Egin egunen tankerako zer bait egitea zen asmoa. Auzipetuei ere omenaldia egin zaie, bertakoen berotasuna jaso zezaten.

### Hurrengoa zer izango da?

Altsasun bertan hurrengo kanpainaren lehen urratsen berri eman da. Zolaren *Nik akusatzen dut* horren harira egingo den autoinkulpazio kanpaina

izango da eta gaurko jaiak baino aldarrikapen politikoagoak ditu. Ideia batzuk bakarrik eman dira; datozen asteetan emango da informazio zabalagoa.

### Epaiketa zein unetan dago?

Azken txanpan sartzen dabil eta berdin jarraitzen dute eskubideen zampaketek eta hutsune handiko garantia prozesalekin. Auzipetuak zigor aurreratu bat dabilta ordaintzen. Estatuak hainbat urtetan zapaldu ditu eskubideak eta hau beste bat da, geure nortasun eta izaerarekin aurrera jarraitzeko nahia izateagatik. **Auzipetuak zelan aurkitzen dira?**


Atzokoa "pilak kargatzea" izan zen jasotako erantzun zabal eta beroarengatik. Ikusi zuten ez direla kriminal batzuk eta herriaren alde lan egiteagatik daudela hor, ideia politikoak eramaten dituztela auzitara. Aurreikusten zen gainera azarorako amaituko zela baina ikusten da abenduan ere jarraituko duela prozesuak. Oso nekagarria da auzipetuentzat eta, dagoeneko, ezin da gehiegi luzatu. Plataforma moduan ikusten dugu hau bukaerara arte eramango dutela: ea beste prozesurik ez den hasten. Ze atzetik datoz *Egun-karia* kasua eta abar.

"Auzipetuentzat 'pilak kargatzea' izan zen atzoko harrera beroa eta elkartasuna"

PAMIELA  
argitzailea

NEGUTEGIA  
Ixiar Rozas

172 orrialde - 15 euro



"Bizitzaren bidegurutzetan garatzen diren egutegi moduko menturistorioak, haietan suertatzen eta ematen diren pertsonaia. Toki desberdinetatik abiatuak? Europan barnako hainbat leku eta oihartzun bilduz, libre ez den lagun batekin elkartzera doaz..."

"Ixiar Rozasen hirugarren eleberrria. Agian mugarri bat bere bidean"



MOTORRA | OPEL CORSA BERRIA AURKEZTU ZUTEN GIAUTON EGUBAKOITZEAN

# Neurriz handiagoa eta prestazio gehiagokoa da Opel Corsa berria

*Egueneko aurkezpenean herritarren eta komertzioetako jendearen oniritzia jaso zuen Opel Corsa berriak. Publizitate kanpainak asteen jarraituko du*

Asteleheneko Goienkaria

Opel Corsa berriaren aurkezpena egin zuten Bergarako Ola auzoko Opel kontzesionarioan. Auto berriua, prestazio gehiagorekin eta itxura modernoagoa duena. Halakoa da Opel Corsa berria, baina ahoz aho ibili zen iruzkina neurri aldaketa izan da, guztiek komentatzen zuten aurkezpenean aurrekoa baino dezentte handiagoa dela Corsa berria.

Aurkezpenean bertan izan zen **Anton Blanco**, ibarreko Opeleko gerentea. Arratsaldeko zazpietan hasitako lunch batekin egin zuten aurkezpena. **Karlos Etxaniz**, kontzesionarioko komertzialak, egin zituen gidari lanak. "Lehenengo Cadettaren luzera berdina du Corsa berriak", hala azaltzen du Etxanizek, "eta horrek segurtasuna handiagoa ematen dio". Corsa berria publizitate kanpaina handi batek lagunduta aurkeztuko da gainera ibarrean, izan ere, aste hone-



Auto berria ikusi, ukitu eta zerbitzu berrien inguruko galderak egiteko aukera izan zen egubakoitzean.

tan autobus bat ibiliko da auto berriaren inguruko informazioa eta opariak ematen. Opelek Corsa berria aurkezteko inbertsio handia egin du eta batez ere gazteak erakarri gura ditu.

Gonbidatu ugari izan zituen egubakoitzeko aurkezpenean, arduradunek herriko jendea gon-

**Aurkezpenean herritarrek, erosleak eta dendari eta langileak egon ziren**

bidatu nahi izan zuten-eta ekitaldira.

Hala, bertan izan ziren **Andoni Erdabide**, Eskoautokoa edo **Xabi Berasategi** arkitektoa. K3 inprimategiko **Josune Iza** eta **Koldo Begiristain** ere bertan izan ziren eta baita Ariznoa tabernako **Juan Etxabarri**, auto

berriaren ezaugarriak eta berrietasunak ikusten. Nola ez, ez ziren falta izan kontzesionarioko langileen lagun eta senideak. Guztiek izan zuten auto berria ikusi, ukitu eta probatzeko aukera. Iritzi orokorra izan zen Corsa berria handiagoa izateaz gain oso hobetuta datorrela.

## • SUTEA ARETXABALETAN



MAIDER ARREGI

## EGUENEAN SUTEA PIZTU ZEN BAÑU-ETXE SL TXATARREGIAN

Eguenean, 18:00ak aldera sua piztu zen Aretxabaletako Bañu-Etxe S.L. txatartegian. Berehala ke beltz eta usain handia zabaldu zen inguruan baina ez zen inor zauritu. Ustez, hozkailuak deskargatzean hasi zen sutea. Gutzira iritsi ziren suhiltzaileak eta denbora gutxira lortu zuten sutea kontrolpean izatea. Suhiltzaileen hiru kamioi eta sei suhiltzailek jardun zuten lanean. Ertzaintzak adierazitakoaren arabera, ez zen gai toxikorik erre eta orain sutea zerk eragin zuen aztertzen dihardute. Baita kalteak zenbaterainokoak izan diren ere.

## • ANTZUOLAKO GAZTE ASANBLADA



JOSETXO ARANTZABAL

## TORTILLA LEHIAKETA EGIN ZUTEN ZAPATUAN

Zapatuan fin aritu ziren hainbat gaztetxo Antzuolan patata tortillak egiten. Izan ere, gazte asanbladak patata tortilla lehiaketa antolatatu zuen eta han ibili ziren nor baino nor gehiago herriko hainbat lagun. Abenduaren 1erako herri afaria ere antolatu dute asanbladako kideek eta aurreratu dutenez, afarira joan nahi dutenek ekintzaren bat prestatu beharko dute: antzerkia, abestiren bat...

OSASUNA | OSASUN MENTALAREN MUNDUKO EGUNA DA BIHAR, MARTITZENA

# Prebentzioa eta kontzientziatzea izango dira ardatza

*Ibarreko Agifes elkarteak lau urte darama gureko gaixo eta senideei arreta egiten Bergarako bulegoan*

Monika Belastegi

Bihar, urriak 10, Osasun Mentalaren Munduko eguna da. Hori horrela, Fedefesek –buruko gaixotasuna dutenen eta haien senitartekoen Euskadiko federazioak– gizarateon osasun mentalak duen garrantzia azpimarratuko du. *Osasun mentala: prebentzioa eta kontzientziatzea* leloa aukeratu du eta, hain justu, prebentzio neurrien garrantziaz eta lege egokien beharrez jabearazi nahi du gizaratea.

Horretarako, hainbat ekitaldi egin dituzte asteburuan. Besteak beste, elkarretaratzea egin zuten zapatuan Laudion.

## BARRUKO OSASUNA ASKO HOBE DAITEKE

Federazioaren zabalduetako informazioaren arabera, biztanleriaren %25 baino gehiagok bere buruaz beste egitera bultzatu ahal duen alterazio psikikoren bat jasaten du, bizitzaren uneraren batean. Osakidetzaren datuen arabera, euskaldunen %3,9ak –ia 70.000 lagun– inoiz bere buruaz beste egitea pentsatu du.

Datuak horiek izan arren eta tratamenduak asko hobetu diren arren, buruko gaixotasuna duten pertsonen oraindik ere bazterte, estigmatizazio, bereizketa eta beste oinarriko eskubideen zapalkuntza jasaten dutela nabarmendu du Fedefes-ek. Esaterako, osasun aurrekontu osoaren %5 da buruko gaixotasunera bideratzen dena. Horren haritik, Fedefes-ek salatzen du buruko gaixotasunen arloan aitzindari izatetik Estatu mailan bigarren izatera jaitsi dela EAE. Eta, hori, Osasun sailak psikiatria arloan duen politika desgokiaren isla dela dio.

## BERGARAKO BULEGOA IA LAU URTEZ LANEAN

Ibarreko buruko gaixo eta haien familien beharrei erantzuteko asmoz, Agifesez –Gipuzkoako elkarteak– bulegoa zabaldu zuen 2002 urtean Bergarako Irizar jau-regian. Hasierako urte hartan Agifesez sei kide baino ez zituen Debagoienean; gaur egun, 60tik

gora dira, eta gehiago izatea dute helburu.

Buruko gaixotasunen gaineko informazioa zabaltzea eta herri-

tarrak sentsibilizatzea izan da Agifesezko kideek bulegoa zabaldu zutenetik egin duten ekintza guztien oinarria.

Horrekin batera, buruko gaixotasuna duten pertsonen senitartekoendako laguntza taldeak ere eskaintzen dituzte. Horren haritik, Agifesezko gogora ekarri dute atek irekita dituztela hurbil-

du nahi dutenendako. Hala, laguntza taldeetan parte hartu nahi dutenek Donostiako bulegora deitu besterik ez dute: 943 47 43 37.

## BOLUNTARIO FALTA

Gaur egun bost boluntariok dihardute lanean Bergarako bulegoan. Baina ez dira nahikoa Agifesezko kideen esanetan. Hala, lerrota-

tik dei egiten dute interesa dutenak bulegora hurbil daitezen edo telefonoz dei dezaten (943 76 98 56). Horrekin batera gogora ekarri dute, bulegoa asteloheneretan egoten dela irekita, 18:30etik aurrera. Bestalde, hileko laugarren eguaztenetan arreta zerbitzua eskaintzen dute, 10:00etatik 14:00etara.

( KUTXA BIZITZA-ASEGURUA )

ZU BIZI ONDOREN ERE BIZIA DAGOELAKO.

Gure laguntza osoa duzu  
maiteen dituzunak  
babesteko.

Zuretzat eta zure familiarentzat etxe baten jabe izatea, horra ahalegin handiz bete duzun ametsa. Zure familiak etxe horretaz gozatzeko eskubidea du noski, eta ezerk ez luke eragotzi behar hori. Izan ere, **Kutxa Bizitza-Asegurua** duzu hori bermatzeko modurik errazena.

Guretzat ere zure familia baita garrantzitsuena.



“Biharko Vida y Pensiones, S.A.”-rekin kontratatutako Kutxa Bizitza-Asegurua. **Kutxa** da bere erregistroan 02 zk.az ageri den aseguru agentziaren sozietatea.

**EAEn osasun aurrekontuaren %5 bideratzen da buruko gaixotasunetara**

**Bergarako bulegoa sei kideekin ireki zuten duela lau urte; gaur egun 60 inguru ditu**

www.kutxa.net

 **kutxa**  
zer nahi duzu bihar?

Biztanleria, enplegu eta pentsioen proiektzioa egin du Euskadiko Kutxarako Joseba Madariaga irakasleak 2050 urtea muga moduan hartuta. Ikerketak dio

egungo pentsio sistema "eskuzabala" bideragarria izan daitekeela lan-merkatua hobetu, emakumeak aktibatu eta etorkinak hartuz gero. Proposatutako azken neurria

izan da deigarriena: erretiroa 70 urterekin hartzea. Diotenez horrela lortuko litzateke Gizarte Segurantzari gehiago ordaintzeke pentsioak ordaintzeko besteko biztanleria.

JOSEBA MADARIAGA | EUSKADIKO KUTXAKO IKERKETA SAILEKO BURUA

# "Pentsio-sistema eskuzabala berma genezake 70 urterekin erretiratuta"

Jon Berezibar

**Batek baino gehiagok eskuak burura eramango ditu erretiroa 70 urtera arte atzeratzeko proposamena ikusterakoan.**

Ez da hainbesterako, ikerketa, nik uste, ikuspegi baikorrek ere egin dago. Izan ere, lana burututa, ikusi dugu bideragarria dela Gizarte Segurantza sistemarekin jarraitzea, berma daitekeela. Horretarako, aurre egiteko erronka batzuk daude eta orain haiei erantzuteko lanean hasi beharko ginateke.

**Konpromisoa eskatzen duten neurriak dira. Kontzientziarik bada-go?**

Gai korapilatsua da, belau-naldi arteko hitzarmen bat dagoelako tartean: gaur lanean daudenak iraganean egin zutenentzat egiten dute eta etorkizunekoak gaur egunekoentzat. Alor publikora jota eta bereziki politikariengana, herriaren ordezkari bezala, lanean aipatzen diren neurrien bultzatzaile izan beharko lirateke. Zaila da, gainera, politikoak motibatuta egotea, planteatzeko diren neurrietako batzuk ez dira-eta onarpen larregikoak eta ziklo politikoak lau urtekoak dira eta gu berrogeita piku urtera gaude begira. Horregatik oso aurrera begiratu behar dugu. Politikariek erronka onartu eta gizartearekin aurrera egin beharko lukete.

**Enpleguaren, demografiaren eta pentsio sistemaren inguruko aldagaiak erabili dituzue. Zentzuzkoak erabili dituzue. Zentzuzkoak erabili dituzue. Zentzuzkoak erabili dituzue.**

**Horiek dira guk aukeratutako aldagaiak, arrazoizkoak diren edo ez eztabaidagarria da, noski. Toledoko hitzarmenaren arabera egungo pentsio sistema bideragarria dela esan digute aldagaiek, hau da, urtero KPIaren arabera eguneratuko liratekeen pentsioekin. Hau sostengarria dela ondorioztatzea interesgarria da eta berri ona da.**

**Lan merkatuan aldaketa sakonak gertatu beharko lirateke, era berean, enplegu bete lortu beharko litzateke-eta.**

Proiektzio demografikoa egiten badugu gauzak orain arte bezala utzita, enplegu galera garbia egongo litzateke. Horrek, noski, kotizatzaile galera dakar, eta gainera garbia da erkidegoko biztanleriaren zahartzea. 2050ean 64tik gorakoak populazioaren zati handi bat izango dira. Beraz, egongo lirateke pentsioa kobra-

tzeko biztanle ugari eta kotizatzen duten gutxi. Sistema hau ez da inolaz bideragarria. Zahartze horri erantzuna ematean legoke irtenbidea, biztanleria okupatua haziaraziz edo landunak ez galduz. Lehenik eta behin, lan merkatua hobetu beharko litzateke. Biztanleria ez-aktiboa aktibatu egin behar da, batez ere emakumei dagokienez, oso okupazio-tasa baxua dute-eta. Jakina, aktibatze hutsak ez du esan gura landuna izatea eta horregatik langabezia ahalik eta gehien murriztu behar da. Honi guztia-ri guk "hirugarren hanka" deritzoguna gehitu behar diogu, hau da, erretiratzeko adina atzeratzea, modu progresiboan. Hau da: 2010ean hasita, erretiratzeko unea urtean bi hilabete atzeratzea proposatzen dugu guk. Horrela, 2040 urtean hasiko lirateke langileak 70 urterekin erretiratzen. Hori da ondorioa, euskal biztanleria zahartzen badoa -eta hori ez da albiste txarra-, pertsona okupatu bolumen on bat behar dugu; kotizatuko dutenak. Beraz, beharrezkoak dira, lan-merkatu bizia eta ez-okupatuak bizkor hartuko dituenak, eta gero-ago erretiratzeko aukera hori ikusten hasi behar gara. Argi geratu behar dena da erabakiak gizartearena izan behar duela, 70ekin erretiratzearen kontuak adostutakoa izan behar du. Beste aukera bat ere legoke ekuazio horrek funtzionatzeko: pentsioak murriztea, sistemaren eman-kortasuna murriztea.

**Etorkinen eraginak nola eragingo luke eskema orokor horretan?**

Biztanleriaren proiektzioa eginda urtean 6.000 etorkin hartzeko gai garela suposatzen da urtero -hori da Eustaten arabera 2003an etorritako kopurua-2050era arte. Kopuru horrekin

**"Egungo pentsio-sistema bideragarria dela esaten du lanak eta hori berri ona da"**

**"Biztanleria ez-aktiboa aktibatu behar da, batez ere emakumeak, oso tasa txikia dute-eta"**



Joseba Madariaga.

bakarrik biztanleria mantentzea lortzen dugu, hazkunde txiki batekin. Zer gertatuko litzateke etorkinik ez baleto? Biztanleria galduko genukeela. Inmigratioak, beraz, garrantzia handia dauka, bestela biztanleria murriztu egiten da, horrek dakarren gutziarekin, langile gutxiagorekin, kotizatzaile gutxiagorekin...

**Pentsio planak, hala ere, komenigarriak lirateke?**

Botila erdi hutsik ala erdi beteta ikus daiteke. Gizarte Segurantzaren soldatek finantzatzen dute, hala izan da orain arte, baina eszenatoki ezkor baten kokatuz gero, une batera iritsiko ginateke oso zaila izango litzatekeena oreka. Gaur egun, pentsioak Gizarte Segurantzaren %18 dira. Gauzak dauden moduan jarraitu eta ehuneko hori igoz gero, langileek gehiago ordaindu beharko lioke Segurantzari eta ez dute nahiko hainbeste zerga pagatzea, ze sol-datik asko kenduko litzateke.

## Biztanleria aktiboaren "sakrifizioa" etorkizuneko pentsioei eusteko

Euskadiko Kutxaren ikerketa sailak plazaratutako ikerketak hiru aldagai neurtzen ditu 2050 urtean pentsioen egoera zein izango den aztertzeko: enplegua, populazioa eta pentsio sistema. Hala, egungo estaldura sistemarekin jarraitzea posible dela ondorioztatzen da, jaiotzak eta etorkinen integrazioa sustatzeko neurriak hartzen badira, jarduera-tasak hobetzeko beste batzuekin batera. Gainera, erretiroa 70 urtera atzeratzea ere komenigarri izango litzatekeela dio. Horrenbestez, "sakrifizioa" eskatzen zaio lanerako adinean egongo den populazioari egungo estaldura sistemari etorkizuneari ere eusteko. Etorkinen beharra ere azpimarratzen da ikerketan, haiek barik, Euskal Autonomia Erkidegoak 400.000 langile galduko litzuzke 2050 urterako. Egungo inmigrazio-tasa mantentzekotan, lan egin dezakeen populazioa igo egingo litzateke. 2020rako enplegu beteko egoera lortzea ere beharrezkoa ikusten da (%3ko langabeziarekin). Pentsioei dagokienez, kotizaziopeko pentsioen %50eko igoera espero da 2050erako, erretiro adinaren atzeratzea eta bizi-itxaropena altuagoa izango dela aintzakotzat hartuta.



## Albiste izango da

OÑATI | IBARRETXEK IREKIKO DU IKASTURTEA

### MUren ikasturte berriko irekiera ekitaldia egingo dute gaur

Gaur egingo du Mondragon Unibertsitateak ikasturte berriaren irekiera ekitaldia. Santa Ana antzokian egingo dute, 12:00etan.

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak, MCCren lehendakari Jesus Cataniak eta Mondragon Unibertsitateko erretore Inaxio Oliverik irekiko dute ikasturtea. Haiekin batera egongo dira: Gipuzkoako diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, MUko lehendakari Jesus Goienetxe, EHUko erretore Juan Ignacio Perez eta Deustuko Unibertsitateko erretore Jaime Oraá.

ESKORIATZA | 118 POSTU ZOZKATUKO DITUZTE

### Ehizarako postuak zozkatzen dihardute Aldaie elkarteak

Urtero bezala, ehiztariek osatzen duten Aldaie elkarteak ehizarako postuak zozkatzen dihardu. Guztira 118 postu jarriko dituzte eskuragarri Maringo inguruan. Kontuan izan behar da, horrela izendatzen duten arren, Eskoriatzako udalerrri osoa hartzen duela bere baitan. Hain justu ere, Marinez gain, Lete eta Apotzaga ere hartzen ditu. Zozketak egunean hasi ziren, baina azaroaren 30era arte egingo dituztela aurreratu dute.

Interesa dutenek Aldaie elkarteak Intxaurtueta kaleko 9. zenbakian daukan egoitzara jo beharko dute 18:45etik 19:45era bitartean. Informazio gehiagorako deitu 943 71 30 48 telefono zenbakira.

BERGARA | URRIAREN 16AN BATZARRA DEITU DUTE

### Gaur da areto futbol txapelketan izena emateko azkeneko eguna

Lagunak Kirol elkarteak hartu du aurtengo Labegaraietako areto futbol txapelketa antolatzeke ardurua. Gogotsu hasi dira Lagunartekoak eta txapelketa hasteko eguna ere hurbiltzen ari zaie; urriaren 21ean, hain justu, hasiko da. Hori horrela, txapelketan parte hartu nahi eta oraindik izena eman ez dutenek jakin behar dute gaur dutela horretarako azkeneko aukera. Parte hartzeko 200 euro ordaindu behar du talde bakoitzak eta kopuru hori Euskadiko Kutxako 3035-0009-12-0090033922 kontu zenbakian sartu behar da. Txapelketa hasi aurretik, batzarra egin nahi dute antolatzaileek talde guztietako ordezkariekin. Urriaren 16an izango da hori, kultura etxean. Informazio gehiago: [www.bergarako-txapelketa.3a2.com](http://www.bergarako-txapelketa.3a2.com) helbidean.

ESKORIATZA | ETXEBIZITZA INTXAURTUETAN DAGO

### Elbarriendako egokitutako etxebizitza zozkatu egingo dute

Jaurlaritzak Intxaurtueta egin zituen alokairuzko etxebizitzetako bat, elbarriendako egokituta dagoena, hain justu, hutsik geratu denez, zozkatu egingo du Udalak. Intxaurtueta kaleko 28. zenbakian dago, lehen solairuan eta 69,95 metro koadro ditu. Udalak era horretan erantzun nahi die herrian horren premian dauden herritarrei.

Etxebizitza hori eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da urtean 15.100 euro baino gutxiago irabaztea. Interesa dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute.

ARRASATE | MONITOREA EGONGO DA

### Gaur zabalduko ditu ateak Musakolako muskulazio gelak

Musakolako kirolgunean dagoen muskulazio gela gaur, astelehena, zabalduko dute. Muskulazio gelak kiroldegiaren ordutegi bera izango du eta aste honetan barrena doan izango da.

Hori horrela, nahi duenak aukera izango du aretoa ezagutzeko eta monitoreaekin zerbitzuaren berri jasotzeko. Izan ere, gune horretan muskulazioan aditua den monitorea aholkularitza eta gidaritza zerbitzua ere eskainiko dute.

Zerbitzuaren prezioari dagokionez, urriaren 16tik aurrerako hileko kuota 24,20 euro izango da bazkideendako eta 34,20 bazkide ez direnendako.

## Hitzorduek



UMEENDAKO CAPOEIRA IKASTAROA HASIKO DA ESKORIATZAN |

Frontoian izango da eta, parte hartzeko, bertara joatea besterik ez dago

Umeendako capoeira ikastaroa emango du Senzala Euskadi taldeak. Gaur, astelehena, hasiko da, pilotalekuko gimnasioan, eta astelehen eta eguaztenetan izango dira eskolak, 19:00etatik 20:00etara. Izena emateko: [senzalaeuskadi@hotmail.com](mailto:senzalaeuskadi@hotmail.com) edo 625 77 22 95; edo zuzenean bertara joan.

Senzala Euskadi taldea Eskoriatzan sortu zen, eta capoeira dantza-ariketa eta horren inguruko musika eta kultura Debagoienan hedatzea da euren helburua. Horretarako, hainbat ikastaro antolatzen dituzte urtean zehar. Bloga dute [www.goiena.net/blog/capoeira](http://www.goiena.net/blog/capoeira) helbidean.

ARETXABALETAKO |

• Katekesiko 1. eta 2.

mailarako izenematea

Katekesiko 1. eta 2. maila egin gura dutenek izena eman dezaketek gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, Herriko plazako bulegoan, 19:30ean.

ARRASATE |

• Portalo herri ekimenak batzarra egingo du

Portalo herri ekimenak batzarra egingo du etzi, eguaztena, Irati elkarteak, 19:30ean.

• 1955ean jaiotakoek batera bazkalduko dute

55ean jaiotakoek batera bazkalduko dute hilaren 28an Sara jatetxean. Izena emateko, sartu 60 euro Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan, urriaren 20a baino lehen.

• 56an jaiotakoek ospakizuna izango dute azaroan

50 urte betetzen dituztela ospatzeko, 56an jaiotakoak batzartu egingo dira azaroaren 4an. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako euren kontuan.

BERGARA |

• 1933an jaiotakoek batera bazkalduko dute

33an jaiotakoek batera bazkalduko dute azaroaren 12an Zumelagan. Izenematea zabalik dago Intxorta tabernan, eta 6 euro aurreratu behar da.

• Odol-ateratzeak egingo dituzte etzi, eguaztena

Odola emateko aukera dago etzi, eguaztena, seminarioko lokaletan, 18:30ean.

• UNEDen hizkuntza eskolan matrikula egin daiteke

UNED unibertsitatearen bidez hizkuntzak ikasteko matrikula egin daiteke Bergarako euren egoitzan, 943 76 90 33 telefonora deituta edo [www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara) webgunean. Maila ezartzeko azterketa egingo dute hilaren 19an.

• 1935ean jaiotako gizon-emakumeen batzarra

35ean jaiotako gizon eta emakumeek batera bazkaltzeko aukera dute azaroaren 5ean Zumelagan. Izena emateko, 12 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan.

• Odol-ateratzeak egingo dituzte etzi, eguaztena

Odola emateko aukera dago etzi, eguaztena, seminarioko lokaletan, 18:30ean.

DEBAGOIENA |

• Lankidetzaren eta garapen ikastaroa Arantzazun

Lankidetzaren eta garapenaren gaineko hasierako ikastaroa antolatu dute Gipuzkoako GKEek azaroaren 4rako eta 5erako Gandiaga Topagunean. Argibideak, telefono honean: 943 28 99 56.

• Euskaltegiak ikasleek dirulaguntzak lortzeko aukera

Euskaltegiak ikasleek dirulaguntzak eska ditzakete. 600 eta 400 euroko dirulaguntzak daude zenbait baldintza betetzen dituztenendako. Argibideak: [www.habe.euskadi.net](http://www.habe.euskadi.net).

ESKORIATZA |

• Ehizarako postuen zozketa egiten dihardute Aldaie

Ehiztarien Aldaie elkarteak ehizarako postuak zozkatzen ari da egunotan. 118 postu daude Maringo inguruan, Lete eta Apotzagan. Azaroaren 20ra arte egingo dituzte zozketak. Parte hartzeko, jo euren egoitzara edo deitu 943 71 30 48 telefono zenbakira.

• 'Ahozko hizkuntza eskolan' delako hitzaldia

Joaquim Dolz Genevako Unibertsitateko irakasleak Ahozko hizkuntza eskolan izeneko hitzaldia egingo du bihar, martitzena, HUHEZIn, 17:30ean.

OÑATI |

• 'Asteburu bat Euskal Herrian' Internet ikastaroa

Asteburu bat Euskal Herrian delako ikastaroa emango dute bihar, martitzena, KZgunean, 16:00-18:00. Espainolez da. Bestetik, IT txartela ateratzeko azterketak izango dira gaurtik hasi eta etzira, eguaztena arte.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Agorrosingo kirolguneko aldagelak zikin

Bergarako kirolgune berriko aldagelen garbitasunari buruz kexatzeko idatzi du irakurle batek. Batez ere arratsaldean aldagelak zikin egoten direla dio, hark ordu horietan erabiltzen ditu eta aldagelak. Hala adierazten du irakurleak: "ez dakit egunean zenbat aldiz garbitzen duten ezta zelan antolatzen diren baina eguneko azken orduetan aldagelak erabiltzen ditugunok zikin aurkitzen ditugu instalazioak". Azken orduko erabiltzaileek beste bezain garbi izateko eskubidea dutela agertzen du irakurleak eta iruditzen zaio beste ordu batzuk edo garbiketa txanda gehiago antolatu beharko lirakeela aldagelak azkeneko orduan ere garbi egiteko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

## Sarean harrapatuta

### Nola ikusten duzu Kubaren etorkizuna?

Gauzak ez daude batere goxo Kuban. Fidel Castro Kubako presidentek bere anaia Raul Castroren esku utzi du herrialdearen agintea. Gaixo dago Castro eta jendea hasi da dagoeneko Kubako trantsizioaren gaine-

an berbetan. *Goiena.net* webgunean galdetu dute Kubaren etorkizunaren gainean. Denetariko erantzunak egon dira, baina gehienek diote kubatarren esku dagoela etorkizuna aukeratzeko bidea.

### HISTORIAK ARRAZOIA EMAN DIO FIDELI

Fidel hiltzen denean Kubako herritarrek aukeraketa bat egin beharko dute edo gutxierekin denok antzera bizi eta pausoz pauso aurrera jo. Arrisku bat badago ordea: gizartearen %10ak zortea izango du; %90a, berriz, pobrezian bizi beharko da. Azkenean Fideli historiak arrazoia eman diola uste dut.

Miren / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### TOM OSABA ETORRIKO DA GAUZAK KONPONTZERA

Fidel joaten denean txarto, nahiz eta orain ez dauden etxafuegoak botatzeko moduan. Fidel joan eta Tom osaba etorriko da, gauzak konpontzen...

Komandantea / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### PRIBILEGIATUAK IRTEN DAITEZKE BERTATIK

Kubako egoera ez dago beste inongo egoerarekin konparatzerik. Batzurenako diktadura da, beste batzundako iraultza aparta. Hango gizarteak eta gureak kode ezberdinak dituzte eta zaila da jakitea zer den onena kubatarrentzat. Joan den urtean egon nintzen Kuban eta ikusi ahal izan nuen giza eskubideen eguneroko zapalkuntza nabaria zela.

Nahi ala ez, benetan penagarria da ikustea nola turista jain-

### OZTOPORIK GABE ERABAKI ETORKIZUNA

Kubaren etorkizuna kubatarrek nahi dutena izan beharko da. Demokrazia erabili beharko dute, ezta? Nik ez dut uste Hego eta Erta-merikakoak Kubako herritarrek baino libreagoak direnik, eta hala eta guztiz ere, Kuba beti da hizpide. Kubari etorkizun oparoa ikusten diot, Europar Batasunaren hipokresia desagertuko delakoan bainago: yankiei blokeoekin amaitzeko eskatuko dielakoan nago. Kubatarrek euren etorkizuna inongo oztoporik gabe erabakitzeko eskubidea dute, eurei soilik dagokie haien etorkizuna onartzea.

Leire / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### HERRIA FIDELEKIN DAGOELA DIRUDI

Raul Fidel baino gogorragoa omen da. Behin baino gehiagotan Fidelek oinak gelditu behar izan dizkio Rauli. Ez da jakiten zer gertatuko den Fidel hil ondoren. Argi dagoena da herria Fidelek dagoela. Dudarik gabe arriskua iparraldetik dator.

Raul / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### IRAULTZA HERRIARENA DA; ERABAKI DEZATELA

Nahi ala ez Kuba diktadura galanta da. Ez nago AEBen alde. Kapitalismoaren kontra nago. Aspal-di utzi nuen komunismoan sinesten. Gizakiaren askatasunaren aldekoa naiz. Kubaren kasuan egindako iraultza herrikoa da. Beraz, uste dut herrikideek daukatela soluzioa. Haiek erabaki behar dute.

Herria / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### KANPORA IRTETEN UTZI HERRITARREI

Kubatik ateratzeko askatasuna ez dagoen bitartean gauzak ez dira ondo joango. Inork ezin du pertsona baten libre ibiltzeko nahia moztu. Kuba librea izateko lehenengo bere biztanleei libre bidaiatzen utzi behar zaie. Kanpora ateratzen utzi behar diete inongo murrizketarik gabe.

Herria / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

koaren moduan tratatzen duten agintari,zerbitzari, zein poliziak kubatarren beraie duintasuna behin eta berriro zapaldua den bitartean. Sinpatia handia diogu Euskal Herrian Kubari, baina Kuba kartzela handi bat da eta pribilegiatu batzuk bakarrik irten daitezke bertatik.

Egoera / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## Halaxe erantzun digute

Prensaurrekoak egingo dituzte futbol epaileek neurketa esatetsuenen aurretik. Zer deritzozu



**JOSU CAMBESES** |  
EPAILEA

Neurri ona da epaileak lanbide eta kolektibo moduan normalizatzeko. Umeek ere, adibidez, ikusi dezatela jokalarien moduan futbola gustatzen zaigula, beste lanbide bat dela. Prensaurrekoak partiduen ostean ematea zentzuzkoagoa bada ere, araudiak erabat galarazten du hori.




**NEREA PEDROSA** |  
ENTRENATZAILEA

Epaileek ez dute partiduaren protagonista izan behar inola ere. Ez dakit zer kontatuko duten prensaurrekoan, akaso partidu ostean egingo balute... Euren betebeharra zelaira irten eta ahalik eta lanik onena egitea da. Ez dakit neurri honi fundamentu larregirik hartzen diodan.



**JOSE LUIS AZKARATE** |  
MONDRAKO LEHENDAKARIA

Neurri moduan ondo ikusten dut baina ikusi beharko da ea prentsaren aurrean esandakoa zelan betetzen duten, ze sarri gauzak ez dira behar bezala gertatzen. Edozelan ere, berba egitea beti da ona, nahiz eta partidu aurretik prentsaurrekoa egiteak hainbesteko logikarik ez izan.



**JULEN BARRENA** |  
ALOÑAKO JOKALARIA

Ondo etorriko dela uste dut. Hala, epaileek ere kazetarien eta gaitzuek iritzia entzun dezakete eta ikusi guztiek ez dituztela beti gauzak eurak bezala ikusten. Beste aldetik ere, ikusiko da epaileak zelan egiten duten lan eta azalpenak emango dituzte, jokalarien moduan.

## Egunkarietako harribitxiak

### EHIZTARIAK HASI DIRA USO GARAIRAKO PRESTATZEN

Eguenean irekiko dute uso garaia. Ehiztariak honezkero hasi dira prestatzen eta postuak ere zozkatzen hasita daude. Aizkorriko zonaldean, esaterako, 14.000 euro ordaindu dituzte posturik kotizatuenarengatik. Haize boladak izango dira ehiztarien buruhauste datozen egunotan.

'Noticias de Gipuzkoa'  
2006-10-08



## Zorroztalea



### Ai ama!

"Lasai asko gelditzen gara gurasoak haurrak marrazki bizidunak ikusten ari direnean, baina marrazkiak izateak ez du ziurtatzen egokiak direnik. Beraz, haurrek ikusten duten guztia aztertu behar da, eta txarra baderitzogu ere, eskolara ekarri eta aztertuko dugu. Ildo horretatik, telebista kateek, publikoek bereziki, gurasoekin batera lan egin behar dute."

Antton Alfaro  
'Berria' | 2006-10-08

norbere burua erabat alde batera laga barik (afizioak etab), nahikoa denbora eramango ez baligu bezala, egunkaria zabaldu, eta hara non hirugarren zeregina ezartzen didaten: umeek telebistan ikusten dituzten marrazki bizidunak kontrolatu behar ditut, eta edukia aztertzeko, gurasoak telebistarekin batera lan egiten hasi behar dugu. Ia ondo ulertu dudana: lanetik bueltan, afaltzeko berdura-purea eta patata-tortilla gertatu ondoren, umearen aurrean liburu bat irakurri behar dut, eta tartetxo bat topatu marrazki bizidunetako istorioei argi egoteko, marrazki horien edukia gero telebistarekin batera landu ahal izateko. Askotxo ez ote.

Momentuz, telebistan orain arte ikasitakoa egiten segituko dut, umeek pizza eta txokolatzeko bati-doa afal dezatela beren gelako telebistaren aurrean *Dragoi-bola* ikusten duten bitartean. Behintzat horrela ez gara haserretuko.

Elena Laka

Azken astean guraso naizenez uki nazaketen bi mezu errepikatzen dihardute medioek: bata, umeen loditasuna, diotenez, lehen munduko haurren artean hurrengo epidemia. Elikadura eskasak, ikus-entzunezko sedentarisimoarekin batera (zin dagit horrela esan zutela, "ikus-entzunezko sedentarisimoa"), umeengan loditasuna sortzen du. Hortaz, gurasoek espabilatu beharra daukagu, elikagai tradizioaletan trebatu, eta familia guztia kirola egiten ipini. Bigarrena, umeen artean irakur zale-tasuna bultzatzeko telebistako iragarki bat, seme-alabek imitazioz jokatzen dutela adierazten diguna, eta beraz, gurasoek liburuak irakurtzeko agintzen diguna, geure umeek imitatu eta irakurri egingo dutelako. Tira, bi etxeko lan gurasoentzako: elikagaiak zaindu eta liburuak irakurri. Guraso egoki, fundamentuzko pertsona, langile lehiakor izaten ahalegintzeak,

**"Elikadura eskasak, ikus-entzunezko sedentarisimoarekin batera, umeengan loditasuna sortzen du"**


**"Momentuz, telebistan ikastitakoa egiten segituko dut: umeek pizza eta txololatezko batidoa afal dezatela"**

### ILUSIOA HONDAKIN ARTEAN

Atzo urtebete, 73.000 hildako utzi zituen lurrikara batek planetako zoko batean. Pakistan iparraldean eta Kaxmirren, hiru milioitik gora lagun kale gorrian geratu ziren, negu bezperan. Negu gorriaren zain daude, berriz, eta egoerak nazioartean arreta eskatzen du oraindik. 7,8ko indarra zeukan lurrikarak astindu zituen Pakistango iparraldea eta kaxmir. 08:52 ziren. Munduan

iristen zailenetakoa den toki batean, hamarkada luzez Pakistanek India auzoarekin duen gatazka militarrek markatutako gunea, bideo kamerak oso gutxiaren esku dagoen luxua dira. Horregatik, orduak, egunak behar izan ziren eremu hartan izandako hondamendi natural handienaren neurriaz jabetzeko. Laguntza beharrean daude oraindik.

'Berria'  
2006-10-08



## Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-X-08

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El Diario Vasco'

#### ELKARRIZKETA

"Seguruenik mahai birtual antzeko batekin egingo dugu lan hilabeteetan, bi aldeko elkar-irizketen bitartez. Garrantzitsua da datoren urtean elkarbizitzarako oinarriak dituen akordio sendoa ixtea. Akordio horrek errespetua izan beharko dio euskal gizartearen borondate demokratikoari eta haren aniztasunari".

Josu Jon Imaz  
2006-10-08

### 'Noticias de Gipuzkoa'

#### ELKARRIZKETA

"Egoera normal baten gaude. Beti esan izan da halako prozesuak gogorak, zailak eta luzeak direla. Horregatik, prest egon behar izaten da gorabehera bat datorrenean lasai hartzeko. Halako gorabehera bat izan berri dugu, baina irteten ari gara. Hori normala da. Bake prozesuak mus partida baten antza du: ordagoak, enbidoak... daude".

Jonan Fernandez  
2006-10-08

### 'Berria'

#### ELKARRIZKETA

"Etorrizunera begira Interneten hedapena mehatxua izan daiteke tokian tokiko kultura eta hizkuntzentzat. Nolanahi ere, indar kontrajarriak daudela antzematen dut. Esaterako, lagun edo etnia berekoak harremanetan jar daitezke Interneten. Bestetik, aurrerapen teknologiko batzuek hizkuntza minorizatuak babesteko balio dezakete".

Tim O'Reilly  
2006-10-08

### 'Gara'

#### ELKARRIZKETA

"Jakin gabe emaitza zein izango den, ez dut ezer esan nahi, nahiz eta uste dudana garrantzitsua dela Europar lortzea Euskal herriak sufritzen duen arazoaren ikuspegi errealista. Uste dut Europako parlamentuan emango den eztabaida giza eskubideetan, eta bakean oinarritutako dela; baina Europa ez da inor arrazoi emateko alde bati edo besteari".

Alyn Smith  
2006-10-08

# KIROLA

- Lehengo territorialeko Bergara denboraldiko lehenengo partiduan 27-17 nagusitu zen | 14
- Ritxar Fernandez korrikalari oñatiarra nagusitu zen Soraluze-Bergara II. krosean | 16

Mikel Galdos golf jokalaria Cadizen jokatu du final nagusia datorren hilean | 19

## PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

### MONDRA

# 0-0

### ANAITASUNA

**Mondra** | Ander, Mercader, Illart, Markel (45. min. Muxi), Laspiur, Gotzon (81. min. Julen), Josu (77. min. Losada), Loiti, Iker, Arkaitz (58. min. Ruben) eta Ekain.

**Anaitasuna** | Aranbarri, Azkoitia, Juaristi, Rotxa, Larrar, Artetxe, Etxeberria, Irazabalbeitia (58. min. Lizarazu), Aranbarri, Nuñez (77. min. Ibarbia) eta Bastida (69. min. Sodupe).

**Golak:** | Ez zen golik egon

**Epailea** | Ibon Gallego jauna. Ez zuen arazorik izan partidua zuzentzeko.

**Bestelakoak** | Eguraldi bikaina egin zuen atzo Atxabalpen.

### Bikain

#### Lortutako puntua

Partidu hasierako helburua irabaztea bazen ere, berdinketarekin amaitu zen lehia. Puntuak aukera ematen die sailkapenean toki lasaian egoteko. Mondrak 7 puntu ditu.

### Kaskar

#### Lehenengo zatia

Partidua borrokatua izan zen baina orokorrean, ikusleendako nahiko txarra. Lehen zatia bigarrena baino eskasagoa izan zen. Ez genuen jokorik ikusi eta bi gol aukera bakarrik.

### Esandakoak

“Partidua nola joan den ikusita, gustura gaude berdinketarekin. Orokorrean norgehiagoka nahiko borrokatua izan da”.

“Gure helburua garaipena lortzea zen, baina etxean golak egitea kosta egiten zaigu. Eta golik gabe ez dira partidua irabazten”.

ILLART ETXEBERRIA |  
MONDRAKO JOKALARIA



JOSETXO ARANTZABAL

Illartek garaipena lortzeko aukera izan zuen bigarren zatian, baina partidua husnako berdinketarekin amaitu zen.

### FUTBOLA | BOSGARREN JARDUNALDIA JOKATU ZEN ATZO

# Etxean golak egitea kosta egiten zaio Mondrari

*Etxetik kanpo Beriori irabazi eta gero, arrasatearrek ez zuten etxean garaipenik lortu. Anaitasunaren aurka berdindu egin zuten*

#### Mireia Bikuña

Partidua irabazteko helburua zuten Mondrako jokalaria eta entrenatzaileak. Baina golak egiten ez direnengan, garaipenak lortzea ezinezkoa da. Hala, atzo Atxabalpen jokatuak partidua husnako berdinketarekin amaitu zen.

#### LEHEN ZATIA, ESKASA

Mondrako jokalariek bazekiten Anaitasuna talde indartsua zela. Horregatik, behar bada, lehen

zatia nahiko borrokatua izan zen. Halaber, joko gutxiko minutuak izan ziren. Lehen zati nahiko eskasa ikusi zuten Atxabalpena hurbildutako zaleek.

Lehen zatian gol aukera gutxi egon ziren. Talde bakoitzak aukera bakarra izan zuen. 27. minutuan, Anaitasuna taldeko Aranbarri errematea gurutzatuta bidali zuen. Atsedenen aurretik, 43. minutuan, Laspiurrek egindako erdiraketa Arkaitzek errematatu zuen; atezainak bikain erantzun zuen.

Bigarren zatia zertxobait biziagoa izan zen. Bai behintzat gol aukerei begiratuta. Mondra garaipenaren bila atera zen eta lerroak aurreratu zituen. Baina atzeko lerroa sendo gordeta.

Josu Zubikaraik egin zituen bigarren zatiko lehen bi erremateak: lehenengo jaurtiketa gora bota zuen eta bigarrena, buruz errematatu zuena, atezainak geratu zuen.

#### AZKEN MINUTUAK

Partiduko azken ordu laurdenean, Mondrak izan zituen partidua irabazteko aukerarik garbienak. 78. minutuan Laspiurrek baloia erdiratu zuen, Rubenek Illarti eman zion baloia. Haren errematea kanpora joan zen. Muxi izan zen 87. minutuan aukera izan zuena.

Norgehiagoka bukatuta zegoela, Ruedak aukera izan zuen gola egiteko. Baina errematea kanpora joan zitzaion.

Bada, amaieran golik ez Atxabalpe futbol zelaian.

**Ez zuten golik ikusi partidura hurbildutako zaleetuek**

**Partidu borrokatua jokatu zuten Mondrak eta Anaitasunak Atxabalpen**

PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

Unai Arregi Urolako jokalaria baten aurrean baloia kontrolatu nahian atzo Azkoagainen.

# Aloñak zailtasunak izan zituen erasora ateratzean

ALOÑA MENDI

**0-1**  
UROLA

**Aloña Mendi** | Idigoras, Losada (Jagoba, 86. min.), Elgarresta, Idigoras, Garai (Astola, 74. min.), Arregil. (Moiua, 61. min.), Arregil., Bazan (Garmendia, 74. min.), Barrena, Lopez eta Olalde

**Urola** | Aritz, Avila, Alberdi, Paino, Iker (Loidi, 67. min.), Ales, Joseba, Oscar, Juerji (Dani, 45. min.), Nuñez eta Calvo (Zufiria, 67. min.) (Aritz, 89. min.)

**Golak:** 0-1 Joseba (81. min.)

**Epailea:** Sansuan jauna. Urola taldeko atezaina egotzi zuen area barruan kolpe bat emateagatik.

Arantzazu Ezkibel

Aloñak etxean 0-1 galdu zuen atzo Urolaren aurka. Norgehiagoka berdindua izan zen. Ez Aloña eta ez Urola ez ziren gai izan partidua jabetza hartzeko. Baloia zela erdian mugitu zuten, baina erasora ateratzeko orduan zailtasunak izan zituzten.

**HEGALEKO IGOERAK**

Lehenengo zatiko azken hamabost minutuetan, Aloñak bizitasuna eman zion partiduari. Hegaletatik sartzea lortu zuten, Urolaren defentsari min emanez. Hala, Robertok aukera paregabea izan zuen markagailuan aurretik jartzeko, baina, atezainak baloia gelditu zuen. Aldaratzea Iñigo Arre-

giri iritsi zitzaion baina haren jaurtiketa ere ezerezean geratu zen.

**GOLA KONTRAERASOAN**

Bigarren zatian iritsi zen Urolaren gola. Zelai erditik hasitako kontraeraso batean Aloñaren atea zulatzea lortu zuen Zumarragako aurrelariak.

Etxeko taldea saiatu zen norgehiagoka berdintzen baina aukera gutxi sortu zituen. Defentsan ondo aritu ziren, gogor, Urolaren eraso ondo geldituz. Baina erasora ateratzeko orduan zailtasun asko izan zituzten. Orain arte ligan jokaturako bost partiduetan bi gol besterik ez dute sartu Orueta mutilek. Datorren astean Donostiara egingo dute bisita.

# Golak sartu barik ezin daiteke partidurik irabazi

UDA

**0-0**

HONDARRIBIA

hartan Arriagak ez zuen asmatu Hondarribiako atezainaren aurrean bakarrik geratu zenean.

Hala partidua berdinketarekin amaitu zen.

**ETXEAN PARTIDURIK IRABAZI GABE**

Preferente mailako bost jardunaldi jokatu dira dagoeneko eta UDAk oraindik ez du etxeko partidurik irabazi. Pasa den asteburuan lortutako puntuari atzokoa gehitu behar zaio.

Beharrezkoa du lehenbailehen denboraldiko lehenengo garaipena lortzea.

Mireia Bikuña

Igor Arriagak izan zituen bere oinetan garaipenaren gola egiteko aukera garbienak. Lehena, hasierako minutuetan eta bigarrena, norgehiagoka amaitzeko bi minutua falta zirela. Azken

**Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila**

EMAITZAK		SAILKAPENA						
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
UDA-Hondarribia	0-0	12	5	4	0	1	11	4
Ordizia-Hernani	1-2	10	5	3	1	1	10	5
Aurrera-Pasaia	B.B	10	5	3	1	1	8	5
Zestoa-Martutene	0-0	08	5	2	0	3	8	4
Aloña Mendi-Urola	0-1	08	5	2	2	1	5	6
Zarautz-Mutriku	4-0	07	5	2	2	1	4	4
Trintxerpe-Touring	0-5	07	5	2	2	1	8	6
Mondra-Anaitasuna	0-0	07	5	2	2	1	10	5
Idiazabal-Berio	0-2	07	5	2	2	1	2	4
<b>HURRENGOAK</b>		07	5	2	2	1	10	5
Hondarribia-Ordizia		06	4	1	0	3	7	6
Hernani-Aurrera		06	5	1	1	3	3	3
Pasaia-Zestoa		05	4	1	1	2	2	4
Martutene-Aloña Mendi		05	5	1	2	2	5	9
Urola-Zarautz		04	5	1	3	1	7	9
Mutriku-Trintxerpe		04	5	1	3	1	3	9
Touring-Mondra		03	5	1	4	0	2	7
Anaitasuna-Idiazabal		02	5	0	3	2	1	5
Berio-UDA								

**Lehenengo erregionala**

# Azkeneko minutuan eta penaltiz berdindu zuten

BERGARA

**1-1**  
ORIOKO

atzo Bergarak Oriokoren aurka Agorrosinen izan zuen partiduan.

**JOKO GUTXI**

Partidua nahiko txarra izan zen. Bi taldeek gutxi jokatu zuten eta baloiaren jabetza ez zuen talde jakin batek izan. Etxekoei zelai erdian baloia kontrolatzea kostatu egin zitzaion.

Lehenengo aukera, partidua hasi bezain laster izan zuen Bergarak. Eskumako hegaletik egindako jokaldi batean, baloia erdiratu eta Josuk, area kanpotik jaurtik zuen. Baloia, baina, atezainak kornerrera bidali zuen.

Hura izan zen Bergarak partidua guztian izan zuen aukera garbiena. 20. minutuan, Oriokoren izan zen aukera. Ezkerreko hegaletik erdiratutako falta batean, aurrelariak burukada eman eta gola egitea lortu zuen.

**PENALTIA ETA GOLA**

Aldagelatik bueltan gauzak berdintsu jarraitu zuten. Bergara noraezean zihoan aukera garbirik sortu gabe. Azken minutuan, Oriokoren arean, epaileak penaltia adierazi zuen. Canasek hartu zuen baloia botatzeko ardura eta ez zuen hutsik egin.



JOSETXO ARANTZABAL

Atzoko berdinketarekin, Bergarak bost puntu ditu sailkapen orokorrean.

Arantzazu Ezkibel

Hiru puntuek etxetik ihes egin behar zutela ematen zuenean, Bergarak norgehiagoka berdintzea lortu zuen. Azkeneko minutuan eta penalti bidez izan bazen ere, puntu bat etxean geratu zen

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Bergarak gogor egin zuen lan garaipena lortzeko

*Denboraldiko lehenengo partiduan garaipena eskuratu zuten Bergararrek*

**BERGARA**  
**27-17**  
**URNIETAKO**

**Bergara** | Kapelastegi, Uribe (3), Agirre (5), Larrañaga (8), Sanchez (2), Poza, Najera, Najera, Zabaleta (1), Lenisoro, Zangitu, Ugalde (2) eta Plazaola (6).

**Urnietako** | Romero, Sonrome (3), Bravo, Urigoitia (3), Larracedo (2), De la nota (1), Iñigo (2), Salaberria, Rosco (2), Vicente (3), Vegas, Igarategi, Rodriguez (1), Rodriguez, Urigoitia.

**Golak:** 1-2, 4-4, 8-6, 9-8, 9-8 11-8. Atsedena. 12-9, 16-11, 17-12, 19-14, 23-15 eta 27-17.



Erasoan baloia azkar mugitzea izan zen mahoneroen helburua atzo.

JOSETXO ARANTZABAL

Arantzazu Ezkibel

Aurre-denboraldi onari jarraipena emanez, atzo, Labegaraian ligako lehenengo garaipena eskuratu zuen Bergarak taldeak. Partidua borrokatua izan zen, eta markagailuan alde ateratzea kosta egin zitzaizen arren, etxeko mutilak nagusi izan ziren norgehiagoka osoan.

Lehenengo minutuetan indarrak parekatuta egon ziren. Bi taldeak defentsan ondo kokatuta atera ziren. Baina minutuak aurrera joan ahala, Bergarak markagailuan abantaila hartu zuen. Hala, 15. minutuan 8-6 aurretik zen etxeko taldea.

Bergarak defentsan oinarritu zuen atzoko lana. Defentsan sendo aritu ziren, Urnietako

erasoa apurtuz. Erasoa, berriz, bizkor jokatu zuten. Baloia mugitu eta sortutako zuloak aprobetxatu zituzten aurkariaren atea zulatzeke.

## PARTIDU GOGORRA

Partidua gogorra izan zen eta momentu batzuetan Urnietako taldearen aldetik jokaldi zakerak ikusi genituen.

Azkenean, Bergarak 27-17 irabazi zuen, ligako lehenengo bi puntuak eskuratu. Aipatzekoa da Mikel Larrañagak egindako lana. Bergarak jokalaria 8 gol egin zituen.

Datorren astean, Tolosara egingo du bisita Bergarak. Iazko denboraldi amaieran izandako maila mantentzea izango da mahoneroen helburu nagusia.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

## Azkeneko segundotan berdindu zuen Ford Mugarrik

**EGIA**  
**25-25**  
**FORD MUGARRI**

Mireia Bikuña

Atsedenean zuen bost goleko errenta galdu eta gero, partidua amaitzeko segundo gutxi geratzen zirela berdindu zuen lehia Arrasateko taldeak. Berdinketaren gola Nestor Callejak egin zuen. Hala, berdinketa garrantzitsua lortu dute arrasatearrek bigarren jardunaldian.

## HASIERA TXARRA

Partidu hasiera oso txarra egin zuen Beñardo Balerdiren taldeak zapatuan. Egia taldeak berehala hartu zuen abantaila markagailuan. 10. minutua bete ondoren, Ford Mugarriko jokalaria partidua menderatzen hasi ziren. Hala, bost goleko errenta lortu zuten atsedeneren aurretik, 11-16.

Baina errenta hura bigarren zatian galdu zuten. Zaleen animuekin donostiarrek, partidua berdintzea lortu zuten; amaitzeko 50 segundo geratzen ziren. Egia taldeak partidua irabazteko aukera ere izan zuen (25-24). Baina azken gola, amaitzeko 17 segundo falta zirela, Ford Mugarrik lortu zuen. Amaieran beraz, puntu garrantzitsua arrasatearren dako. "Guretako puntu oso inportantea da. Donostiarrak ziren partidua irabazteko faboritoak", azaldu zigun Beñardo Balerdik.

Andoni Bernal (7 gol), Eneko Gartzia eta Valle eta Egaña atezainak izan ziren jokalaria onenak.

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Lehen partidua galdu egin dute

**ARRASATE**  
**24-29**  
**TOLOSA**

**Arrasate** | Salterain, Sarrao (4), Etxeberria (2), Ojanguren, Arrese-Igor (7), Elortza (3), Urrutia (2), Altzelai (1), Hernandez (4), Penas, Urra, Letona, Bohoio eta Aranburuzabala.

**Tolosa** | Olano, Izagirre (8), Irastortza, Mujika (3), Agirre (1), Aranburu (3), zabala (3), Baena, Garmendia, J. Azpeitia (5), Caminos (2) eta X. Azpeitia (4).

**Golak bost minuturo:** 2-3, 6-6, 7-8, 8-10, 9-14, 10-16. Atsedena. 13-16, 14-19, 15-22, 17-23, 22-26, 24-29.

Mireia Bikuña

Estreinako partidua jokatu zuen atzo Iturripen lehenengo territorialeko eskubaloitako taldeak; eta galdu egin zuen Tolosaren aurka.

## HUTS GEHIEGI ERASOAN

Partiduko lehen gola arrasatearrek egin zuten arren, Tolosako taldea izan zen atsedenera abantailarekin iritsi zena: 10-16. Arrasateko taldeak huts asko egin zituen erasoan, batez ere, pibotari egindako paseetan.

Bigarren zatiaren hasierako minutuetan egin zuen Arrasatek jokorik onena. Hala, markagai-



Joseba Arrese-Igorrek lan ona egin zuen pibotaren postutik.

JOSETXO ARANTZABAL

luan zuen desabantaila murriztea lortu zuen (13-16). Partiduari buelta emateko gai izango zirela ematen zuen. Baina epaileak

hartutako erabakiek ez zien hartarako aukerarik eman: hiru jokalarik txartel gorria ikusi zuten.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

**BIGARREN MAILA NAZIONALA**  
Egia Servi Chap-Ford Mugarri 25-25

**LEHENENGO TERRITORIALA**  
Arrasate Eskubaloitako-Tolosa 24-29  
Bergara-Urnietako 27-17

**GAZTE MUTILAK**  
Usurbil-Aloña Mendi 29-24  
La Salle Legazpi-Bergara 16-22

**GAZTE NESKAK**  
Jauja Andonegi-Verkol Aloña 17-23

**KADETE MUTILAK**  
Aloña Mendi-Euskalduna tab. 29-22  
Gatz Museoa Jakion-Goierri 16-18

**KADETE NESKAK**  
Arrasate-Pulpo 3-40  
Verkol Aloña-Grosetako 24-13

• GIPIZKOAKO TXAPELKETA

# Hasieratik nagusitu zen etxeko taldea

*Denboraldiko lehenengo partiduan itxura ona eman zuen Gorka Judezek zuzentzen duen taldeak. Garaipen etxean geratu zen*

ALOÑA MENDI

79-41

DKS

**Aloña Mendi** | Otamendi (4), Zabaleta (8), Zabaleta (14), Amado (15), Lizarralde, Aramburu (11), Cruickshank (11), Anton (4) eta Mendiola (12)

**DKS** | Cepedo (4), Fernandez (15), Alvarez (7), Zapico (4), San Juan (9) eta Campo (2).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 25-8. Bigarren laurdena 39-21. Hirugarren laurdena 59-34. Laugarren laurdena 79-41.

Lehenengo minutuetan Aloñaren nagusitasuna argi ikusi zen Zubikoako kantxan. Hala, lehenengo laurdenean 25-8 aurreratu zen etxeko taldea. 17 puntuko alde nahikoa izan zuten oñatiarrek markagailuko alde mantentzeko.

Aloñak banakako defentsarekin jokatu zuen. Donostiarrek baloia jokoan jarri orduko hasten ziren presioa egiten etxekoak eta modu horretan baloi asko errekupeatu ahal izan zituzten. "Gure helburua, presioa egitea izan da. Hala, pase txarrak egitera behartu ditugu eta baloi asko galdu dituzte", adierazi zigun partidu amaieran Aloñako entrenatzaile Gorka Judezek.

## KANPOKO JAURTIKETAK

Donostiako taldeak zonako defentsa egin zuen. Taula azpiko zuloak ondo itxita, Aloñak kanpoko jaurtiketak egin zituen gehienbat.

Partidu amaierarako, baina, Donostiako taldea leher eginda zegoen eta Aloñak barneratzeak egiteko aprobetxatu zuen momentua. Hala ere, Aloñak ez zuen jaurtiketa guztietan asmatu. Erasora ateratzerako orduan zer egin



JOSETXO ARANTZABAL

Mendiolak 12 puntu lortu zituen zapatuko partiduan.

behar duten ikasi behar dute oñatiarrek. "Erasora ateratzean lehenetasuna zeri eman jakitea falta zagu", adierazi zigun Judezek.

Laurdenetako partzialak hauek izan ziren: 25-8, 14-13, 20-13 eta 20-7. Lehenengo eta azkeneko laurdenean erraz nagusitu ziren etxekoak. Beste bi laurdenak, berriz, nahiko parekatuak izan ziren. Hala ere, Aloña markagailuan beti aurretik izan zen.

## IGOERA FASEA ESKURATZEA

Igoera fasean sartzea izango da aurtengo helburua Oñatiko taldearentzat. Gabonak arte jokatuko den txapelketan emaitza onak lortu eta igoera fasea jokatzea da taldeak denboraldi honetarako helburua.

Horretarako, txapelketak dituen zazpi jardunaldietan ondo aritu beharko dira. Datorren astean Donostian jokatuko dute.

## Arantzazu Ezkibel

Lehenengo laurdenean apurto zen norgehiagoka etxeko alde. Zapatuan, Zubikoa kiroldegian jokatutako partiduan Aloñak ez zuen areriorik izan. Defentsa gogorra kantxaratu zuten oñatiarrek eta presioa eginez Donostiako DKS taldea estutzea lortu zuten.

• GAZTE MAILA

# Puntuak etxean geratu ziren

MUGARRI ALKESA

70-31

BKL-CAF

**Mugarri Alkesa** | Zeziaga (12), Arejolaleiba (7), Galarraga (10), Barberena (12), Iruretagoiena (2), Hernando (6), Some, Elorza (5) Zeziaga (16) eta Julia.

**BKL** | Goikoetxea (4), Ormazabal (6), J. Apaolaza (5), Iturbe (4), X. Apaolaza (4), Etxeberria (2), Huizi (2), Esnaola, Canales, Lakunza (4), Toribio (14).

**Laurdenetako emaitzak:** lehenengo laurdena 21-6. Bigarren laurdena 38-16. Hirugarren laurdena 51-24. Laugarren laurdena 70-31.

## Arantzazu Ezkibel

Arrasateko gazteek gogor hasi dute denboraldia. Eguenean, ligako bigarren partidua jokatuta zuten eta garaipena lortu zuten (70-31).

Norgehiagoka erraza izan zen etxekoentzat. Arrasatekoak oso ondo aritu ziren defentsan. Hala, baloi asko lapurtu zituzten eta kontraerasoan ateratzeko aukera onak izan zituzten. "Azkar jokatuta dugu, kontraerasoko jokaldi asko eginez", azaldu zigun Danel Aiastui taldeko arduradunak partidua ostean.



ARTXIBOA

Nagusiek bezala, bi partidu jokatuta eta biak irabazi dituzte gazteek.

## MARKAGAILUA ALDE

Arrasatekoek hasieratik jarri zitzaie markagailua alde. Lehenengo laurdenean 15 puntuko

aldea atera zuten eta gero hura eustea besterik ez zuten izan. Datorren astean, Donostian, La Salleren aurka arituko dira.

• GIPIZKOAKO TXAP.

# Candyk, hiruko jaurtiketekin irabazi zuen

Mireia Bikuña

Liga hasiera bikaina egin zuen zapatuan Bergarako saskibalo talde nagusiak. Inter taldea mendean hartu zuen, 42-61.

## HIRUKO JAURTIKETAK

Partidu amaierako errenta, lehen bi laurdenetan lortu zuten. Batez ere, hasierako minututan lortutako hiruko jaurtiketekin. Halaber, azpimarratzekoa da hiruko jaurtiketetan Iker Murillok lortutako portzentajea; sei jaurtiketa egin zituen eta bost, saskiratu. Hirugarren laurdena izan zen partiduko txarrena. Defentsa txarra egin zuten tarte hartan bergararrek.

• GAZTE MAILA

# Partidu eroso Eskoriatzako nesKentzat

Mireia Bikuña

Amiaeran markagailuak erakusten zuen moduan (36-18), partidu eroso jokatuta zuten Eskoriatzako gazte mailako neskek, BKL-CAF taldearen aurka, atzo.

## TAULA AZPIKO LANA

Partidua goitik behera menderatu zuten Josu Bakeroren neskek. Eskoriatzarren nagusitasuna erakutsi zuten taula azpian. Bada, minuturik gehienetan markagailuan 8-10 puntuko abantaila izateko aukera eman zien.

Laugarren laurdenean, erasoko lana sendotu zuten eskoriatzarrek. Hala, tarte zabalduta zuten markagailuan.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

#### SENIOR MUTILAK

Aloña Mendi-DKS	79-41
CD Internacional-Candy	42-61

#### GAZTE MUTILAK

Mugarri Alkesa-BKL CAF	70-31
------------------------	-------

#### GAZTE NESKAK

Eskoriatza-BKL CAF	36-18
--------------------	-------

#### KADETE MUTILAK

Cafes Aitona-Ford Mugarri	36-113
---------------------------	--------

#### KADETE NESKAK

Eskoriatza	Atsedena
------------	----------



JOSETXO ARANTZABAL

Argazkian, Richard Fernandez oñatiarra helmugara heltzen. Bakar-bakarrik heldu zen Richard Bergarara eta 30 minutu eta 20 segundoko marka egin zuen.

**SORALUZE-BERGARA** | HAMAR KILOMETRO EGIN ZITUZTEN KORRIKA PARTEHARTZAILEEK ATZO GOIZEAN

# Ritxar Fernandez eta Arantxa Aldalur azkarrenak

*222 korrikalarik hartu zuten parte. Alebin eta infantilek ere izan zuten euren lasterketa*

*Lasterketa azkarra izan zen eta iaiz baino maila handiagoko korrikalariek hartu zuten parte*

Goreti Elortza

Antxintxika Triatloi Taldekoek antolatutako Soraluze-Bergara II. Herri Krosak erantzun bikaina izan zuen. Soraluzetik Bergarara 10 kilometro egin behar izan zituzten Euskal Herri osotik etorritako korrikalariek. Iaz baino kilometro bat gutxiago izan

du krosak aurrean, eta antolatuzaileen ahotan, "azkarra izan da lasterketa, maila handiagoko korrikalariek hartu dute parte eta. Oso pozik gaude II. edizio honek izandako erantzunarekin".

11:00etan hasi zen krosa Soraluzean. Eta 11:30etan heldu zen bakar-bakarrik lehenengo korri-

kalaria Bergarako helmugara. Ritxar Fernandez oñatiarra izan zen azkarrena. "Abiadura handia izan du lasterketak hasieratik. Ionut Zinca errumaniarra gogor hasi da baina bigarren kilometroan harrapatu dut. Hortik aurrera joan naiz aurretik helmugaraino" azaldu zigun irabazleak. Lehen emakumea, Arantxa Aldalur azpeitiarra izan zen. 12:30ean egin zuten sari ematea eta horren ondoren, omenaldia egin zioten Jose Luis Fernan-

**Jose Luis Fernandez zenari omenaldia egin zioten Antxintxika taldekoek**

dezi, ekainean hildako korrikalari bergararrari. Haren alargunak lore-sorta eta bere argazkia jaso zuen Antxintxikako eskutik. Gero, hainbat opari zozketatu zituzten partehartzaileen artean.

Valentin Egidazu Bergarako Udaleko kirol zinegotziak Antxintxika Triatloi taldearen lan handia goraiatu nahi izan zuen. "Antolakuntza bikaina izan da, ez dugu arazorik izan. Lan handia egin du Antxintxika taldeak eta eskertzekoa da hori. Herrian giro polita sortu da gainera".

**GAZTETXOEN PROBAK**

09:45etan hasi ziren Bergaran gatzetxoentzat probak. Alebin eta infantilen mailetan banatuta, 1000 eta 1500m egin zituzten korrika neska-mutil gazteek. 10:30etan sariak eman eta opariak zozketatu zituzten korrikalarien artean.

## Sailkapena

### LEHENENGO GIZONEZKOAK

1. Richard Fernandez	(30'20")
2. Ionut Cinca	(31'16")
3. Asier Zarraga	(32'37")

### LEHENENGO EMAKUMEZKOAK

1. Arantxa Aldalur	(39'14")
2. Marisol Martinez	(40'38")
3. Cristina Rojas	(41'58")

### GIZONEZKO BETERANOAK

1. Juan Antonio Soto	(33'15")
----------------------	----------

### EMAKUMEZKO BETERANOAK

1. Arantxa Aldalur	(39'14")
--------------------	----------

### ALEBINAK

1. Andoni Najera
2. Julen Jorge
3. Ander Aristi

### INFANTILAK

1. Eric Polanco
2. Jokin Etxabe
3. Beñat Etxabe



II. ANTXTINTXIKA HERRI KROSA

• PARTEHARTZAILEEN AHOTAN



**ANDONI NAJERA** | BERGARA  
Lehenengoa heldu zen Andoni alebinen lasterketan. "Gustura egin dut, gogorra izan da baina pozik nago irabazi dudalako", esan zigun. Datorren urtean ere animatuko da.



**JULEN IRIZAR** | BERGARA  
Julenek alebinetan hartu zuen parte, "gehiago entrenatu beharra daukat, ez dakit zein postutan sartu naitzen baina, 10etik 15era uste dut". Azkarregi hasi zela aitortu zigun.



**UNAI EGAÑA** | BERGARA  
Gustatzen zaio Unairi korrika egitea baina ez du gehiegi entrenatu. "Hamabigarren edo heldu naiz, datorren urtean hobeto egitea espero dut", esan zigun bergararrak.



**MIREN ETA NEKANE** | BERGARA  
Bi neska hauek alebin mailako proban egin zuten korrika. Miren bigarren neska izan zen eta Nekane, berriz, laugarrena. "Lasterketa baten parte hartzen dugun lehenengo aldia da, eta ez gaude korrika egiten ohituta. Hala ere, datorren urtean animatuko direla esan zuten.



**RICHARD FERNANDEZ** | OÑATI  
"Zatitxo bat nahiko gogorra egin zait, putzu asko zegoelako. Hala ere, lasterketa polita iruditu zait", esan zigun irabazleak. "Ionut gogor hasi da baina bigarren kilometrorako harrapatu dut".



**ROBERTO ZURRO** | BERGARA  
Helmugara heldu zen lehenengo bergararra izan zen Roberto. "Azkar eta gustura ibili naiz, eta eguraldia aproposa izan da. Behobia eta maratoia egiteko prestatzen ari naiz", adierazi zuen.



**JOSEBA LARRAÑAGA** | BERGARA  
Iaz ez zuen parte hatu baina aurten animatu da. "Sufritu dut motza baina azkarra izan delako lasterketa. Baina nahiko gustura ibili naiz, datorren urtean berriz egingo dut", esan zigun.



**MARI CARMEN** | ELGOIBAR  
Larri ibili zen Mari Carmen momentu batzuetan baina heldu zen helmugara. "Azkar etorri naiz, eta pozik nago iaz baino hobeto ikusi dudalako neure burua", aitortu zigun pozik.



**XABIER ELKORO** | BERGARA  
Oso gogorra egin zitzaion Xabierri krosa. "Azkarregi joan da lasterketa hasieratik. Iaz baino motzagoa izan da baina sufritu dugu...", zioen bergararrak. "Datorren urtean ere egingo dut."



**GRUPO RKAUZ**  
ARETXABALETA 1950 • 2006 ARRASATE

**RKAUZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA

**RKAUZ**  
COCINA INTEGRAL  
Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA

**ETXE MOBEL**  
ALTZARIAN  
Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE

**RKAUZ**  
BUEBLES  
Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA

Nekatuta non erosi ez dakizulako?  
Har ezazu deskantsu!  
Arkauz etxean nahi duzun guztia  
aurkituko duzu.

**Arkauz zure etxea da.**

## Pilota

• LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

# Eugi samur nagusitu zitzaion Iker Arretxeri lau t'erdiko txapelketako estreinako partiduan

*Garaipen horrekin, Eugik txapelketako hirugarren garaipena eman dio Aspe enpresari. Agoizkoak partidu ona jokatu zuen Bergaran*

Arantzau Ezkibel

Eugik ondo hasi du lau t'erdiko txapelketa. Atzo, Bergarako frontoian 22-11 nagusitu zitzaion Iker Arretxe pilotari gazteari.

Partidua nahiko ona izan zen. Ez zen aparteko jokorik ikusi Bergarako frontoian, baina Agoiztarrek duen eskarmentua nahikoa izan zen partidua irabazi eta kanporaketa gainditzeko.

Izan ere, txapelketako estreinako partidua galtzea sekulako porrota izango litzateke.

**HASIERATIK AURRETIK**

Partidua hasieratik jarri zen nafarraren alde. Hasierako tantoak azkar egin zituen. Joko aldetik tanto luzeak izan ziren. 11. tantora Eugi iritsi zen lehenengo. Handik aurrera abantaila eutsi eta falta zitzaizkion beste 11 tantoak egitea besterik ez zuen izan pilotari nafarrak.

Eugi hiru aldiz izan da lau t'erdiko txapelketako garailea. Distantzia motzeko espezialista dela esan dezakegu, beraz. Oraindik jakiteko dago noren aurka jokatuko duen datorren partidua. Bengoetxea VI. eta Capellanen arteko norgehiagokan garaile ateratzen denaren aurka aritu beharko du agoiztarrek.

**ASTE BURUAN HIRU GARAIPEN**

Garaipen horrekin, Eugik, aste-buruko hirugarren garaipena eman dio Aspe enpresari. Galarza V. eta Berasaluze IX. izan dira Aspe enpresan garaipen lortu duten beste bi pilotariak.

Datorren astean Bergarako frontoian jokatu behar ziren partidua direla-eta, aldaketak izan dira. Hala, domekan, Irujo eta Saralegik jokatu beharrean, Gonzalezek eta Kokak neurtuko dituzte indarrak txapelketako hamaseirenetan.



Lau t'erdiko norgehiagokaren ostean Titin eta Nalda eta Xala eta Laskurain aritu ziren.

JOSETXO ARANTZABAL

## Areto futbola

## Minuturik gehienetan partidua menderatu arren, Aloñak galdu egin zuen

*Jokoan nagusi izan ziren oñatiarrak barikuan, baina golak Ataunek egin zituen*

Mireia Bikuña

Gipuzkoako txapelketako lehenengo mailako bigarren jardunaldia jokatu zuten egubakoitzean Aloña Mendik eta Ataun Avia taldeek. Zubioa kiroldegian jokatutako norgehiagokan Ataungoak nagusitu ziren, 1-4.

**PARTIDU PAREKATUA**

Amaierako emaitza nahiko zabal izan arren, partidua orokorrean oso parekatua izan zen. Lehen zatiko minuturik gehienetan berdinketa izan zen nagusi markagailuan. Atsedeneren aurretik hartu zuen abantaila Ataun Avia taldeak: 0-2.



Aloñako jokalaria Mikel Madinagoitia baloia oinetan duela.

JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren zatian oñatiarrek menderatu zuten partidua, baina ez zuten trebetasunik erakutsi gola egiterako orduan. Hala, Ataun Avia izan zen beste bi gol egin zituena. Aloñaren gola azken minutuetan lortu zuen Aitor Lensek. Amaieran beraz, garaipena Ataungo taldeak lortu zuen: 1-4.

**MAILA MANTENTZEA**

Horixe da Aloña Mendiko areto futbol taldeak aurtengorako duen helburua. "Hamasei talde gara eta talde bakarra da maila galtzen duena. Hala ere, gure helburu nagusia, maila mantentzea da", azaldu zigun Aloñako entrenatzaile, Xanti Bernalek.

## Golfa

## Mikel Galdos kolpe bakarragatik geratu zen txapelketatik kanpo

*Empordan jokatu zuen txapelketan ez zuen moztea gainditu Aretxabaletarrak*

Arantzau Ezkibe

Mikel Galdos Aretxabaletako golf jokalaria Empordan (Girona) jokatzen ari zen txapelketatik kanpo geratu zen zapatuan.

Lehenengo jardunaldian 24. postuan amaitu zuen eguna, 71 kolpe eginez. Bigarrean, berriz, 74 kolpe egin zituen baina 54. sailkatu zen. Azkenean, bi egunetako emaitzak kontuan hartuz, Mikel kolpe bakarragatik txapelketatik kanpo geratu zen.

Peugeot Tour sailkapen orokorrean 36. postuan amaitu du

Aretxabaletako jokalaria. Lehenengo urtea izateko oso denboraldi ona egin du Mikel Galdosek. "Lehenengo urtean zaila izaten da mozte mailak pasatzea, baina nik, aurtun, txapelketa bat baino gehiagotan pasa dut", azaldu digu Galdosek.

**50 ONENEK FINALA**

Peugeot Tour sailkapena kontuan hartuz, lehenengo 50 sailkatuek final handia jokatuko dute Cadizen datorren hilean. Esan bezala, Mikelek 36. postuan amaitu du, beraz, Cadizen jokatuko den txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu du.

Bestalde, joan den astean Logroñon jokatutako Espainiako txapelketan 11. postua eskuratu zuen Mikelek. Oso ondo aritu zen eta lortutako emaitza ezin hobea izan zen. Kontuan hartu Galdosen aurretik sailkatu ziren 10 jokalarietatik zazpi Europa mailan lehiatzen direla.

Alejandro Franco madrildarra Arrasate Hiria xake txapelketa jokatzeko ari da. Orain arte jokatuak jardunaldiak kontuan hartuz, liderra da madrildarra. 23 urte

besterik ez dituen arren, Nazioarteko maisu titulua du Francok. Munduko bi txapelketa jokatu ditu: bata Oropesan; bestea, Atenasen. Hain zuzen ere,

Atenasekoan lortu zuen Nazioarteko maisu izateko beharrezkoak diren hiru partidetakoa bat. Xakeaz eta Arrasateko txapelketaz hitz egin dugu Alejandrorekin.

ALEJANDRO FRANCO | XAKE JOKALARIA

# "Xakean jokatzeko modu egokiena liburuak irakurtzea da"

Arantzazu Ezkibel

**Arrasate Hiria txapelketan parte hartzen duzun lehenengo aldia da?**

Bai, txapelketa honetan parte hartzen dudana lehen aldia da aurtengoa.

**Eta nola hartu zenuen Arrasate-ra etortzeko erabakia?**

Internet bidez izan nuen Arrasateko txapelketaren berri eta interesgarria iruditu zitzaidan.

Unibertsitatean ikasten ari garenontzat egun onak dira hauek. Beraz, aurrean animatu egin naiz eta txapelketara aurkeztea erabaki dut.

**Nolako maila ikusi duzu Arrasateko txapelketan?**

Egia esan, aurrean ez dago oso maila altua. Jokalari guztiak inguruko herrietakoak dira eta maila polita egon arren, ez da puntuko jokalaririk etorri.

**Zenbat urterekin hasi zinen xakean jokatzeko eta nork bultzatuta?**

Sei urte nituela hasi nintzen. Etxean beti ikusi izan dut aita xakean jokatzeko. Zaletasun handia du gure aitak, eta garai batean, etxean jokatzeko zuten, bere lagunekin.

Xakea zer zen ikasteko kuriositatea sortu zitzaidan eta hala, liburuak irakurtzen hasi nintzen. Bestalde, aitak piezen mugimenduak erakutsi zizkidan. Gero, ikastetxean, xake eskolatar joaten hasi nintzen.

**Beraz, goiz hasi zinen lehiaketetan parte hartzen.**

10 urterekin umeentzako txapelketa ezberdinetan parte hartzen hasi nintzen eta gaur arte. **Denbora gutxian, nazioarteko maisu titulua eskuratu duzu.**

Denbora kontua oso erlatibo da, baina Espainian dagoen maila ikusirik, denbora gutxian lortutako maila dela esan daiteke. Nazioartean, berriz, 12 urte besterik ez duten haur batzuk sekulako maila dute. Frantzia eta Alemania bezalako herriekin alderatuz Espainian maila baxuagoa dago.

**Zer egin behar da xakean Nazioarteko maisu izateko?**

Nazioarteko maisuak diren aurka txapelketa ezberdinak jokatu behar izaten dira. Gainera, puntuazio jakin bat atera behar izaten da.

Nazioarteko federazioak duen taula batzuen arabera hitzartuta dago hori. Gehienez, hiru txapelketa jokatu atera behar da nazioarteko titulua.

**Ordu asko sartu behar al da hala maila izateko?**

Bai, ordu asko sartu dut, batez ere txikitik. Orain, ordu gutxiago sartzen dut.

Gehienbat liburuen bidez ikasi dut. Autore onen liburuak hartu eta nire kabuz partida ezberdinak eta jokaldi ezberdinak ikasi izan ditut.

Liburuetan denetarik ikasten da: irekitze eta amaiera jokaldiak, estrategiak eta taktikak, besteak beste. Nik uste dut ikasteko modu egokiena liburuak irakurtzea dela.

**Xakea bizibide izatea zaila izan- go da, ez?**

Bai, oso zaila da. Espainia mailan badago xakea bizibide duen bat edo beste. Baina horretarako oso maila altua izan behar duzu. FIDE rankinean 2.500 edo 2.700 puntu baino gehiago izan behar dituzu.

**"Etxean beti ikusi izan dut aita xakean jokatzeko eta kuriositatea sortu zitzaidan"**

**"Frantzia eta Alemania bezalako herrietan askoz ere maila altuagoa dago"**



Alejandro Franco Arrasate Hiria txapelketako liderra da.

JOSETXO ARANTZABAL

Hori baino maila txikiagoa duen jendeak xake klaseak ematen ditu honetaz bizi ahal izateko. Gainera, txapelketak ere jokatzeko dituzte.

Kasparov adibidez, xaketik bizi da. Jokalari horiek 2.800eko puntuazioa dute gutxi gora behe-

ra eta partidak prestatzeko besterik ez dira arduratzen. Irekiera eta amaiera jokaldiak gertatzen dituzte gero txapelketak jokatzeko.

**Nor da gehien miresten duzun xake jokalaria?**

Jende askorentzat bezala, niretzat ere Kasparov maisua da. Izaera txarra duela esaten duten arren, bere aurka jokatzeko ametsa izango litzateke. Baita Karpoven aurka jokatzeko ere.

Baina hori ezinezkoa ikusten dut. Oso zaila da txapeldunen aurka jokatzeko, ez bada jokalaria askoren aurka jokatzeko duten partida horietako batean.

**Nola definituko zenuke xakea: arte edo kirol moduan?**

Nik uste dut biak uztartzen dituela. Alde batetik, kirola da, beste batzuekin lehiatzea bermatzen dizulako. Esfortzu jakin bat eskatzen duen kirola da. Beste alde batetik, artea ere bada, estetiko oso polita da eta xakea.

**Eta zer esango zenioke xakea kirola ez dela esaten duenari?**

Xakeak, beste edozein kirolek bezala, esfortzu jakin bat eskatzen du. Xake partida batean, beste kirolean bezalako tentsioa izaten da nagusi. Kirol batek eskatzen duen guztia eskatzen du xakeak, fisikoki esfortzurik egin ez arren. Esfortzua buruarekin egin behar da.

**Inoiz ikusiko al dugu xakea olinpiar jokoetan?**

Zaila ikusten dut. Urte morderoa da eskaera hori egiten ari garela, baina nire ustez oso zaila da. Izan ere, jende askorentzat xakea oso kirol aspergarria da. **Gaur egungo gazteek xakean jokatzeko ohiturarik badute?**

Nik uste dut orain ere jokatzeko dela. Agian, garai batekin alderatuz, orain gutxiago jokatuko da. Orain beste dibertsio modu batzuk ere badaude eta gazte batzuek xakea zerbait aspergarria bezala ikusten dute.

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Bergaran gaztetxoek bi dantza talde berri sortu dira | 22
- ETBko 'Egin kantu!' saiorako aukeraketa egingo dute gaur, Arrasateko Monterronen | 27

DJ Balzak disko-jartzaile ikastaroa emango du Bergaran zapatutik aurrera | 25

## OÑATIKO SAN MIGEL PARROKIA



JOSETXO ARANTZABAL

Teusa zaharberritze enpresako ordezkarien esanetan, lanok erronka handia dira San Migel parrokiak duen balio artistikoarengatik.

**ZAHARBERRITZEA** | ATARI NAGUSIA, KANPANDORREA ETA KLAUSTROA GARBITU ETA EGOKITU EGINGO DITUZTE KANPOKO ALDETIK

# Udaberrirako garbi-garbi lagako dute Oñatiko San Migel parrokia

*Udaberrirako dirdira egingo du Oñatiko San Migel parrokiak. Garbiketa eta zaharberritze lanak egingo dizkiote kanpoko aldetik: aldamiok jartzen dabilta dagoeneko. Lanok 701 mila euroko aurrekontua dute*

Monika Belastegi

Oñatiko San Migel parrokia garbitu eta zaharberritzeko lanak hastear dira. Egunotan aldamiok jartzen jardun dute eta bukatu bezain laster ekingo die lanei. Parrokia kanpoko aldetik txukuntzea da lanon xedea eta hiru dira interbenituko dituzten guneak: kanpandorrea, klostroa eta atari nagusia. Modu horretan, San Migel parrokia babestea eta gure ondorengogana modu egoki baten iristea gura dute.

Lanok Teusa enpresak egingo ditu eta aurrekontua 701.457 eurokoa da. Finantziario moduari dagokionez, Foru Aldundia %50aren kargu egingo da -350.728

euro-, Oñatiko Udalak %25 -175.364 euro- hartuko du bere gain; parrokia %9,98aren -70.000 euro- kargu egingo da eta gainerako 15,02% -105.364 euro- partikular eta entitateek emandakotik batzea espero dute.

Eguenean eman zituzten aditzera lanon xehetasunak klostroan egindako prentsaurrekoan. Han izan iren Udal agintariak eta parrokiako batzordeko eta Teusa zaharberritze enpresako ordezkariak.

### 4-5 HILABETE IRAUNGO DUTE LANEK

Jon Garin Teusa enpresako komertzial arduradunak egitera doazen lanak "erronka handia" direla esan zuen, "San Migel

parrokiak duen balio artistiko handiarengatik".

Garinek azaldu zuenez interbenituko diren hiru guneetan -aldi berean egingo dituzte hiru

Teusa enpresak egingo ditu lanok eta 4-5 hilabete iraungo dute

Eliza barruan beste egokitzapen batzuk egitea aztertzen ari dira

guneetako lanak -garbiketa sakona egingo da lehendabizi. Hala, denboraren poderioz harriari itsatsi zaizkion gaiak kenduz. Horren ondoren zaharberritzeari ekingo diote. Lanok 4-5 hilabete iraungo dute, "beti ere, eguraldiaren arabera", gehitu zuen. Guztira 20-25 langile artean jardungo dutela ere gehitu zuen.

### PARROKIA BARRUA

Kanpoko lanekin bukatu eta gero, aztertzen ari dira aurrerago parrokiaren barruko aldean ere hainbat lan egitea. Besteak beste, kanpandorreko eskailerak, instalazio elektrikoa eta parrokiako zorua berritu gura dituzte, oztopo arkitektonikoak kendu eta hainbat gela txukundu.

OÑATIKO SAN MIGEL PARROKIA

• HIRU GUNETAN INTERBENITUKO DUTE



**KANPANDORREA.**

Kanpandorrearen goiko alde da egoera kaskarrean dagoena, urak eta hotzak eragindako pitzadurengatik, batik bat, baina egitura ondo dago. Lehendabizi garbiketa sakona egingo dute kanpandorrean: belarrak, goroldioa eta algak kenduko dituzte, harriari duen berezko itxura emanez. Gero, pitzadura guztiak itxiko dituzte ura berriz ez sartzeko. Horrekin batera, erlojuek inguruan duten egitura metalikoa ere txukunduko dute gehiago ez degradatzeko.

**KLAUSTROA.**

Kanpoko aldetik zaharberrituko dute. Kanpandorrean bezala, dauden pitzadurak itxi egingo dituzte batetik, eta, bestetik, erabat garbituko dute "denboraren poderioz itsatsi zaizkion elementu arrotz guztiak kenduz", Garinen esanetan. Ornamentaziori dagokionez, elementu apaingarri asko ditu klaustroak kanpoko aldetik. Elementu horien kasuan, "dagoen degradazioa geratzea da helburua, faltsifikazio historikoan jausteke".



**ATARI NAGUSIA.**

Oro har garbitu eta pitzadurak itxiko dituzte. baina horrekin batera, zaharberritze lan sakona ere egingo dute. Izan ere, elementu apaingarri ugari ditu atariak eta horrek "zirujau lan handiagoa" eskatzen duela azaldu zuen Garinek, "zaharberritzea oso detailekoa", izango dela gehitu zuen. Bestalde, atarian dauden irudiak zaharberritze hasi aurretik polikromatuak diren ala ez jakiteko frogak egingo dituztela ere gehitu zuen Teusa enpresako ordezkariak.

## Herritarren partehartzea eta laguntza eskatu dute

*Aurrekontuaren %15 -105 mila euro-, baliabide pribatuetatik lortzea espero du parrokiako batzordeak*

M.B.

Parrokia zaharberritzeko lanen finantziarioari dagokionez, %15, 2, hau da, 105.364 euro baliabide pribatuetatik lortzea espero dute laurreratu zuten udal agintarietako egueneko prentsaurrekoan eta parrokiako batzordeko kideek. Hori horrela, herritarren partehartzea eskatu zuten.

Lourdes Idoiaga alkateak nabarmendu zuen Udala aurrekontuaren laurdenaz -175.364 euro- egingo dela kargu "ez bakarrik monumentu gisa garrantzitsua delako; baita herriko kristau elkartearen topaleku delako ere".

Horrekin batera, oñatiarrek laguntzeko izan duten joera ekarri zuen gogora eta oraingoan ere herritarrei partehartzeko gonbita luzatu zien.

Sabino Zuazabeitia parrokoak ere oñatiarrek parrokiaren egin

diren aurreko interbentzioetan izan duten laguntzarako joera azpimarratu zuen.

**BESTE HIRU INTERBENTZIO**

Azkeneko 50 urteetan parrokiaren egin diren lanak ekarri zituen gogora Sabino Zuazabeitia. Duela 50 bat urte Oñatira iritsi zenetik hiru konponketa ezagutu ditu parrokiaren. Eta hark azaldu zuen bezala, lehenengoan izan ezik, "duela 30 urte parrokiaren teila-tua konpontzeko eta duela bost, eliza barruan dagoen Errukizko Amaren kapea garbitzeko orduan herritarrek oso ondo erantzun zuten".

Kristau elkartearendako duen garrantzia azpimarratu zuten

Parrokoak oñatiarrek laguntzeko izan duten joera ekarri zuen gogora



Udal eta parrokiako batzordeko ordezkariak egueneko aurkezpenean.



## Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**  
Erosten jakin



Dantza taldeen emanaldiek asko alaitzen dute herria. Haur Dantzarien eguna da horren adibide.

ARTXIBOA

## Bi neska dantza talde berri osatu dituzte Bergaran

*Xamatx, Abarka eta Moises Azpiazu dantza taldeek eta Jardun elkarteak "dantzari bultzada" eman nahi diote ekimenarekin*

M.B.

Bi neska dantza talde berri osatu dituzte Bergaran. Bata 6tik 10era arteko umeek osatzen dute; bestea, 12tik 14ra arteko gazte txoek. Xamatx, Abarka eta Moises Azpiazu dantza taldeen eta Jardun euskara elkartearen ekimenez sortu dira taldeok. Jarduneko ordezkarien esanetan, hirugarren talde batek ere egin lezake aurrera -14 urtetik 15era artekoak-, baina oraindik ume batzuk falta dira taldea osatzeko. Hori horrela, gogora ekarri dute

dantza taldean parte hartzeko interesa duten neska-mutikoek Jardun euskara elkartera deitu besterik ez dutela (943 76 36 61 zenbakia).

Hirugarren talde batek ere egin lezake aurrera baina osatzeko gazte txoak falta dira oraindik

### INDARRAK BATU

Nagusien dantza taldea egon badago herrian, baina haurren kasuan dagoen hutsunea bete nahi izan dute ekimenaren bultzatzaileek. Hori horrela, "laurok elkartu, indarrak batu eta dantzari bultzada emateko helburuarekin" lanean jarri ziren.

Osatu berri diren bi taldeek bi aste barru hasiko dituzte entseguak. Hala, entsegu egun eta orduak adosteko batzarra egingo dute antolatzaileek dantzari gazteekin eta haien gurasoekin. Eguaztenean, hilaren 11n, izango da hori, 18:00etan, kultura etxean. Horrekin batera, Jarduneko ordezkariak aurreratu dute izena eman gabe izan arren, interesa dutenek batzarrera hurbil daitezkeela eta han eman izena.

## Barikuan banatu zituzten Bergaran San Martin argazki rallyko sariak

*Roberto Madariagak -diapositiba- eta Josu Unamunok -digitala- eramane dituzte San Martinetako jokatutako rallyko lehen sariak*

E.I.

Egubakoitzean banatu zituzten Bergarako Pol-Pol argazki taldeak Udalaren laguntzarekin antolatutako II. San Martin Argazki Rallyko sariak.

Diapositiben sailean, Zaldirako Roberto Madariagak eroan zuen lehenengo saria etxera; bigarrena, Benito Cantero bergararrarendako izan zen; hirugarren saria ere etxean geratu zen: Agustin Gurrutxagak jaso zuen eta herriko diapositiba onenarendako saria, berriz, Jose Aguiayok eskuratu zuen.

Argazki digitalari dagokionez, Josu Unamuno bergararrak jaso zuen lehenengo saria; bigarrena ere bergarar batentzat izan zen, Benito Can-

terorendako, hain justu ere. Hirugarrena, Fernando Oregi soraluzearrarendako izan zen, eta herriko argazki digital onenarendako saria, berriz, Joseba Leturiak eskuratu zuen.

Pol-Pol argazki taldeak Zabalotegi auzoan duen egoitzan egin zuten sari ematea eta hantxe batu ziren irabazle guztiak Roberto Madariaga eta Jose Aguiayo izan ezik. Sari ematearen aurretik, diapositiba emanaldia egin zuten.

Bigarrenez antolatu du aurtengo San Martinetako rallya Pol-Pol taldeak



Irudian irabazleak sari ematearen ostean.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

# Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko **blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaren gaineko informazioa:  
**www.goiena.net/blogak** ·  
**azabarte@goiena.com** ·  
**943 76 92 70**

**Goiena.net**  
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/dragon-oriental	/ganesha	/maulanda	/pando
/argi-plastik	/dukiena	/garaia	/merkeopari	/richimaier
/arregi	/ego	/gorkagarai	/multiopicas	/udalax
/atai	/elejalde	/gorkataxi	/ohiak	/udalaitz
/azkarate	/ezkutuorly	/gutzizeder	/okipark	/urdeki
/joseba	/gallastegi	/irudisport	/vitoria	/markiegi
/BZ-sistemas		/korozabaleta		/urbieta

Eta baita ere:

www.aizue.com  
www.lilura.com  
www.baster-alde.com  
www.ehmf.com.



ERAKUSKETA | INTXORTA 1937 KULTUR TALDEAK ANTOLATUTA, 1934KO URRIKO IRAULTZAREN GAINEKO MOSTRA ARRASATEN

# Mugimendu sozialistaren inguruko gertaerek interes handia sortu dute

*'Amets gorrien taupadak. Urriko Iraultza Debagoianean' eta 'Mezua boteilan', bi proiektu handi ikusgai*

**Non.** Monterron jauregian.  
**Noiz arte.** Urriaren 15era arte.  
**Ordutegia.** Egutero 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Goreti Elortza

*Amets gorrien taupadak. Urriko Iraultza Debagoianean* izena du Monterron jauregian Intxorta 1937 Kultur Elkarateak antolatuta duen erakusketak.

Urriaren 2an zabaldu zuten eta Juan Ramon Garaik adierazi digun moduan inoiz baino jende gehiago hurbildu da egun hauetan erakusketara. "Poztekoa da hori, gaia jendeari interesatzen zaiola dirudi eta, hori, oso garrantzitsua da guretzat".

Bederatzi paneletan banatuta, urriaren 5ean jazotako gertakari tragikoei buruzko informazioa eskaintzen da erakusketan.

Idatzi originalak, argazkiak, gutunak... lan handia egin du Intxorta taldeak dokumentuak topatu eta ikertzen. "Celestinok egindako liburuak berebiziko garrantzia izan du proiektua aurrera eramateko. Ferroleko artxibo militarretik lortu ditugu dokumentu gehienak", azaldu digu Garaik.

Lantegi eta zerbitzu guztiak geldiarazi zituen urriaren 5ean hasitako greba hark. Hamasei eta hogeita bost urte bitarteko gazte askok sinesten zuten beste mundu bat egin zezaketela. Pertsona guztiak eskubide berdinak izatea, lan eta bizi baldintzak hobetzea, Udalak dirudunek soilik ez kontrolatzea... ziren euren ametsak. Eta euren ametsak lortzeko borrokatu zuten.

**RAFAEL CECIAGAREN OBRA**  
Rafael Ceciaga Argentinan bizi den mondragoetarrak garai har-



Rafael Ceciaga artistak gertutik bizi izan zituen 34ko Urriko Iraultzaren ondorioak.

tako eraikinen maketak egin ditu kristalezko ontzien barruan eta ikusgai jarri ditu, Garaik eskatu zion moduan.

*Mezua boteilan* du izena Ceciagaren lanak, bere artelan guztiak dutelako mezu politikoren bat.

"Historia batzea beharrezkoa da, izan ginenaren emaitza da-eta", esan zuen Ceciagak. "Oso gertutik bizi izan dut hau guztia, Urriko Iraultzan nire aita preso hartu zuten-eta. Bakoitzak izandako esperientziatik ikasten du, bai-

na jendeak esaten duena zuk entzundakoarekin bat etortzea handia da niretzat".

Bere obra ilobari utziko diola esan zigun Rafaelek. "Bakarrak dira munduan eta ez ditut salduko, familian geldituko dira".

GORETI ELORTZA

# IKER

## SUKALDEAK:

ARRASATE:  
Udala Plaza z/g  
943 79 00 43

OÑATI:  
San Lorentzo 1  
943 53 35 48

## BAINUAK:

ARRASATE:  
Zarugalde 52  
943 79 99 42

FAGOR 



DEBAGOIENKO II. MUSIKA LEHIAKETA | EGUBAKOITZEAN EMAN ZUTEN JAKITERA ENTZULEEK AUKERATUTAKO TALDEA

# Arrasateko Anal Bag hirukotea izango da Danbakako hogeigarren taldea

*Lehia gogorra egon da asteen 'danbaka.com' webgunean. Hala frogatu dute jasotako 1.397 botoek. Hilaren 20an hasiko dira emanaldiak*

Jon Berezibar

Anal Bagek jasotako 478 botoekin erabakita geratu da, dagoeneko, Danbakako bigarren edizioan parte hartuko duen hogeigarren taldea. Lehia polita egon da asteen zehar botoen gora-behera handiekin. Abenduaren lehen joko dute Anal Bagekoek, Hori-xe izango da, hain justu, final aurreko azkeneko saioa. Lehena, berriz hile honen 20an izango da eta guztira bost jaialdi gehi finala izango dira Elgetako Espaloia kafe antzokian.

Hogeigarren taldea aukeratzeko botoen kopurua itzela izan da, espero baino erantzun hobea izan dute bozketek eta *danbaka.com* webguneko sailkapenean etengabeak izan dira taldeen gora-beherak. Arianrod, Lord Witch eta Anal Bag taldeek jaso dute boto gehien. Azken bi horien artean egon da lehia, baina bariku goizean arrasatearrek hartu zioten aurrea Bergarako heavy taldeari.

Talde guztiak erabakita, bada, dagoeneko guztia prest dago hilaren 20ean Danbaka lehiaketa bigarren edizioko zuzenekoek ekiteko. Urriaren 20tik hasita bi asterik behin izango dira emanaldiak, abenduaren lehen azken taldeek jo arte. Kontzertu guztiak ordu erdi-



koak izango dira eta jaialdi bakoitzak estilo ezberdinak eta bakar-lari bana izango ditu. Azkeneko emanaldia ikusita, epaimahaia berriz bildu eta hiru finalisten ize-

nak emango ditu jakitera. Hala, aukeratutako hiru taldeek, urtarriaren 12an jardungo dute, buruz buru, finalean. Ordura arte, baina, talde guztiak oholtza gainean

erakutsi beharko dituzte erakutsi beharrekoak.

Era berean, bakar-lari onenak ere saria izango du aurten. Bestalde, ikusleek ere sari bat eman

## ANAL BAG

**Nongoak?** Arrasate.

**Nortzuk osatzen dute?**

Aitor *Narzisus* (ahotsa), Oskar *Niggurath* (ahotsak), Iban *Dr. Pomper* (programazioak eta sintetizadoreak).

**Noiz hasi ziren?** 2005ean

hasi ziren euren *loop*, erritmo eta "zorokeriekin". Hirurek hainbat taldetan jotzen dute baina lehiaketa-rako aurkeztutako talde hau proiektu berezia da denetarikoa eraginekin: Beastie Boysekin hasi, Nana Mouskurira arte edota Manowar eta Napalm Death aipatzen dituzte. Nahasketa ikaragarria da.

**Musika estila?** Porno grind-core elektronikoa.

**Hizkuntza?** Gaztelera.

ahal izango diote gustukoan duten taldeari botoa emanez. Hori, SMS bidez, *danbaka.com* webgunean sartuta edo kontzertu egunetan, Espaloian horretarako propio ipiniko dituzten kutxetan botoa sartuz egin ahal izango da.

## Emanaldien egitaraua\*

### URRIAK 20

- **Azkaiter Pelox** | Bergara
- **Drakes** | Oñati
- **Klaxson** | Antzuola
- **Ozen** | Arrasate

### AZAROAK 3

- **Matx** | Elgeta
- **Malenkonía** | Oñati
- **Belceblues** | Bergara
- **Aby-Kem** | Bergara

### AZAROAK 17

- **Igor** | Aretxabaleta
- **Mahaster River** | Bergara
- **Los Cretinos** | Arrasate
- **Yotox** | Bergara

### ABENDUAK 1

- **Jim TNT & Amaia** | Arrasate
- **Raul Lasa** | Arrasate
- **Unnëa** | Oñati
- **Scam** | Aretxabaleta

### ABENDUAK 15

- **Inalectrik** | Aretxabaleta
- **Little Little Much** | Arrasate
- **5 Twisters** | Arrasate
- **Anal bag** | Arrasate

\* Emanaldi guztiak Elgetako Espaloia kafe antzokian izango dira, 22:30ean. Finala urtarrilaren 12an jokatu dute epaimahaia erabakitako hiru finalistek.

**EGUNEKO SARRERAK ETA ABONUAK.** Kontzertu bakoitzeko sarrerak 4 euro balio du –Gaztekutxarekin, 2 euro–. Sei emanaldietarako abonua ere badaude. Abonuaren prezioa 18 euro dira –Gaztekutxarekin, 10 euro–. Abonua eta sarrerak eskura daitezke Elgetako Espaloia kafe antzokian edo Goienako egoitzetan; baita 902 36 38 51 telefonora deituta ere.

## SARRERAK SALGAI

Guztia prest beraz aurtengo Danbakari ekiteko. Taldeak aukerata eta kontzertuen egutegia erabakita zuzenekoekin hasia beretik ez da geratzen. Azkaiter Pelox, Drakes, Klaxson eta Ozen izango dira urriaren 20an lehiaketa irekiko dutenak. Dagoeneko salgai daude sarrerak, 4 euro tan –Gaztekutxarekin 2 euro–. Sarrerok eskura daitezke Espaloia kafe antzokian, Goienako egoitzetan eta 902 36 38 51 telefonora deituta. Gainera, abonua ere badaude 18 eurotan –Gaztekutxarekin 10 euro–. Danbaka kamisetak ere salgai daude dagoeneko.

## Danbakako kamisetak salgai daude

Astorerekin elkarlanean aurten Danbakako kamisetak atera ditu Goienak. Aurtengo berrikuntzeta-ko bat da hori eta bai neskendako zein mutilendako kamisetak daude. Modelo bakoitza hainbat neurritan dago.

Elgetako Espaloian Kafe Antzokira jo dezakezue kamisetok eskuratzeko edo 902 36 38 51 telefono zenbakian ere eska ditzakezue. Kamiseten prezioa 19 eurokoa da. Gura izanez gero, etxean ere jaso dezakezue kamiseta; kasu horretan 3 euro gehiago ordaindu beharko dira.

Edizio mugatua da. Hortaz, adi egon eta lehenbailehen eskuratu zeure Danbaka kamiseta.



## Lehia bizia 'danbaka.com'-en

Egubakoitz eguerdian amaitu zen entzuleek euren botoen bidez Danbakan lehiatuko den 20. taldea aukeratzeko epea.

Guztira 1397 boto jaso dira –e-posta helbide bakoitzeko boto bana eman zitekeen– eta urriaren 2an, botoa emateko aukera ireki zutenetik, partehartzea ikaragarria izan da. Code-Syntax da boto sistema kudeatu duen enpresa eta astelehenean jasotako boto-uholdearekin harrিতa deitu zuten Goienara. Boto gehien astelehen goizean eta eguen eta egubakoitz arratsaldean jaso ziren. Lehiarik handiena hiru talderen artean egon da: Anal Bag, Arianrod eta Lord Witch. Azkeneko biek, gainera, gorakada itzela egin zuten azken orduetan. Azkenean arrasatearrek lortu zuten sailkatzea eta euren osatuko dute abenduaren 15eko jaialdiaren kartela. Bestalde, ez da hemen amaitu entzuleek euren iritzia emateko aukera. Urriaren 20tik aurrera, ikus-entzuleek gustukoan duten taldea bozkatu ahal izango dute *danbaka.com*-en eta SMS bidez.

- 1 ANAL BAG**  
ARRASATE  
Botoen %34,27
- 2 LORD WITCH**  
BERGARA  
Botoen %31,61
- 3 ARIANROD**  
ESKORRIATZA  
Botoen %18,67
- 4 DOLCE VITA**  
ARRASATE  
Botoen %6,51
- 5 23F**  
ARRASATE  
Botoen %5,02
- 6 ROMBOS NEGROS**  
BERGARA  
Botoen %2,76
- 7 DESPREZIO**  
ARRASATE-SORALUZE-ESKO.  
Botoen %0,42
- 8 AITOR PEDREJON**  
BERGARA  
Botoen %0,35
- 9 MIKEL LARRAÑAGA**  
BERGARA  
Botoen %0,28



Disc-jockey ikastaroa antolatu Bergarako Jardun elkarteak datorren zapatutik aurrera. Asier Baltzategi, DJ Balza, bergararra izango da irakaslea eta haren

esperientzia eta hainbat urtez aretoak girotzen ikasitakoak erakutsiko dizkie ikastaroan izena ematen dutenei. Esaten duenez, berak ere ez daki oso ondo nondik

helduko dion gaiari, hark ere berez kabuz eta etxean esperimentatzen ikasi zuen eta ofizioa. Musika zaletuendako aukera bikaina dela dio DJak.

## ASIER BALTZATEGI | DISC-JOCKEYA

# "Musika bizi duzulako zatoz ikastarora, ez DJ izan nahi duzulako"

Jon Berezibar

### Aspalditik zbiltza disko-jartzearen kontu honekin?

Jende aurrean hasi nintzela izango dira sei-zazpi urte edo, baina hasi nintzenetik bederatzi bat, orduan erosi nuen nire lehenengo ekipoa. Normalean ibili izan naizen lekuak dira Arrasateko 3.60 aretoa, Bergarako Jam eta azkenaldian Ziripot taberna. Horietatik deitzen naute. Badago mugimendua ibarrean, jendea behintzat badabil.

### Eta zu zelan hasi zinen?

Betidanik gustatu izan zait musika eta musika elektronikoa sartzen hasi zenean pixkanaka hasi nintzen ikusten gauzak zelan zihozten. Lehenengo ekipoa ikusi eta probatu egin nuen, beste barik hasi nintzen, poliki-poliki. **Estilo batera mugatzen zara edo unearen arabera jartzen duzu musika?**

Musika elektronikoa jartzen dut beti, baina oso zabala da musika eta horren barruan denetarik aukeratzen dut, unearen arabera ere bada.

### Badirudi, inguruan bai behintzat, DJ-en kultura asko zabaldu dela azkenaldian. Hala da?

Ematen du gorakada baten edo gaudela. Nik egia esan ez dut oso ondo ulertzen zergatik gertatu den hori orain, zeren bitxia da. Azken finean, beste batzuen musika hartu eta ipini egiten dugu eta bat-bateko *boom* horren arrazoia ez dut garbi ikusten. Ez dago tartean sormenik. Izan daiteke sarri errazagoa izaten dela DJ bat ekartzea talde bat baino eta horrek eragin dezake. Gainera DJ-ak gau guztian dihardu, errepertorio mugatu barik.

### Badago pike txikitxo hori zuen eta zuzeneko taldeen artean?

Guztiz ezberdina da, ezin duzu konparatu, ez dago alderik eta. Zuzeneko bat beti izango da zuzeneko, sormen hutsa da, zure abestiekin eta zuzenean instrumentu bat jotzen.

### Sormena aipatzen duzu. DJ-ek ez daukate irudimenerako tartirik edo?

Bai badago unean uneko erantzuteko gauza hori eta gainera egungo teknologiarekin gehiago, aukera askatasun gehiago dago. Kantu bat har dezakezu eta zatiak aukeratu, moldatu... badauka puntu hori.

### Badukazu DJ-ren bat erreferente moduan hartzen duzuna?

Uf, zaila da esaten ze horrenbeste daude... Ni hasi, rock-and-rolla entzuten hasi nintzen eta nire lehenengo erreferenteak haiek dira. Hortik The Prodigy edo The Chemical Brothers moduko taldeetara jotzen duzu, rockaren eta elektronikaren mugan daudenak eta hortik musika elektronikorekin interesatzen hasi nintzen. Orain, adibidez, Alemaniatik datorren soina gustatzen zait gehiago baina guztia geratu barik doa aldatzen eta zaila da estilo batera mugatzea.

### Hala ere, ematen du musika elektronikoa lehen zeukan berrikuntzarako ahalmen hori galdu egin duela.

Izan daiteke, ze orain guztiak oso joera minimalista dauka, oso monotonoa eta errepikakorra, eta dinamika horretan sartu da. Momentuko gauza da baina, irtingo da hortik.

"Gau guztian zehar musika kate bat sortzea da DJ-aren lana, musika geratu ez dadin"

"Zer da disko jartzaile bat musika maite edo sentitzen duen norbait ez baldin bada?"



Musika gustuko dutenentzako ikastaroa dela dio Asier Baltzategi disko-jartzaileak.

### Ikastaroan zertan oinarrituko zarete?

Teknikan batez ere. DJ-aren lana musika gau guztian zehar jartzea da eta musika elektronikorekin gertatzen dena da kantuak bata bestearekin lotu daitezkeela, gau guztian iraungo

"Ez dut oso ondo ulertzen azkenaldiko DJ-en gorakada hau, gauza bitxia da"

"Guztiak patroiarri jarraitzean datza, musika elektronikoa kolpeka doa eta egokitzea da kontua"

duen katea egiteko, geratzeko jotzeko. Hori ahalik eta ondoen egokitze teknika erakustea da helburua. Bi diskoek abiadura hartu behar zaie eta kontrolatu, konpasak errespetatu. Belarri kontua da batez ere.

### Betidanik rock gogorra entzuten inguru baten badago ohiturarik musika elektronikorako?

DJ ikastarora apuntatzen denak musika gustatzen zaiolako egiten du, zentzu larregirik ez du eta "DJ izateko" asmoarekin egitea. Zer da DJ bat musika gustuko duen norbait ez baldin bada? Musika sentitzen duen bat. Niretzat ere ikastaro honen kontua arraroa da eta buruari buelta dezente eman dizkiot ea zelan izan daitekeen. Teorian ikasteko dagoena da ekipoa zelan muntatu eta hori guztia eta abiadura aldaketan zergatiak adibidez.

### Zeu sekula ibili zara ikastaroetan?

Ez, neure kabuz ikasi izan dut. Etxean hasten bazara oinarritzko

ekipamendua behar duzu: bini-loekin bazalbiltza bi plater behar dituzu eta cd-ekin ere berdin. Horretaz gain, nahasteko mahaia behar da. Patroiarri jarraitzean datza guztiak, kolpeka doa eta musika elektronikoa. Berez, elkarrekin bi kantu lotzea erraza da, belarriarekin hartzen da abiadura eta listo. Gero, beste gauza bat da kantuak bata bestearekin ondo geratzea, bat ez datorren ahots bat sar daiteke. Abestien artean zerbait komuna egon behar da, edo ez, ze bakoitzak bere estiloa dauka. Nik beti bini-loarekin egiten dut, nahiago dut, gauza fisikoagoa da. Ez diet uko egiten cd-ei baina bini-loak asko gustatzen zaizkit. Agian rock-and-rolletik datorkidan zerbait da, orduan bini-loa ikaragarria zelako. Nik musika jartzerakoan ez dut aurrez pentsatzen zer egingo dudan lekuak, orduak, jendeak, giroak baldintzatzen du. Gauzak animatzen joaten dira.

# DANBAKA

DEBAGOIENKO II. MUSIKA LEHIAKETA

1. KONTZERTUA

## URRIAK 20

Egubakoitza | 22:30  
Elgetako Kafe Antzokia

# AZKAITER PELOX

BERGARA

# DRAKES

OÑATI

# KLAKSON

ANTZUOLA-ZUMARRAGA

# OZEN

ARRASATE

KAMISETAK  
SALGAI!

INFORMAZIO +

www.danbaka.com



## Musikak, zinemak eta antzerkiak osatzen dute Espaloiko neguko agenda

*Musikan, Danbaka lehiaketako kontzertuak eta Debajazz programako emanaldia nabarmentzen dira*

Leire Kortabarria

Gertu dago Elgetako Espaloia antzokiko kultura egitaraua hemendik eta urte bukaerara arte. Eguaztenetako zinema emanaldiak, antzerkia, Danbaka lehiaketako kontzertuak eta beste musika emanaldi batzuk... denetarik dago euren agendan.

Zinemari dagokionez, hurrengo saioa etzi, eguaztena, izango da eta Robert Rodriguezen *Sin City* filma emango dute. Hurrengo ekitaldia margo erakusketa baten inaugurazioa izango da: Kontxi Idigoras margolariaren lanak erakutsiko dituzte urriaren 16tik 26ra bitartean.

Hilabete honetan, *Erreka Mari* antzezlan (urriak 22), *Crash* filmaren emanaldia (urriak 25), ardo-dastatze eguna (urriak 26)... izango dira.

Azaroan, *Erreleboa* eta *Ama, quiero ser lehendakari* (bigarren hau Glu-Glu talde ezagunarena) eta *Cantervilleko mamua* antzezlanak izango dira, eta Bide Ertzean taldearen kontzertua ere bai.

Abenduan, Leo Bassi aktore polemikoak *La Revelación* ikuskizuna egingo du. *Artea* antzezlan ere izango da. Zinema, *Blade Runner* edo *Teléfono rojo, volamos hacia Moscú* film klasikoaren emanaldiak nabarmendu behar dira.

### MUSIKA

Musika eskaintzari dagokionez, alde batetik, Danbaka lehiaketa dago: lehen emanaldia hilaren 20an izango da, eta sarrearak eta abonua erosteko aukera badago.

Bestetik, iaz bezala, Debajazz musika lehiaketako emanaldia ere izango da: Wagon Cookin taldeak kontzertua egingo du urriaren 28an.

### Hitzorduek



### ARAMAIOREN ETA ZUIAKO KOADRILAREN GAINEKO ARGAZKI LEHIAKETAK | Aramaioko Udalak argazki lehiaketa bat antolatuko du, eta Zuiako Koadrilak, beste bat

Aramaio gaitzat duten edo izan dezaketen bi argazki lehiaketan parte hartzeko aukera dago. Bat Aramaioko Udalak antolatuko du, eta Aramaioren gaineko argazkiak eskatzen dituzte, kolorezkoak edo zuri-beltzekoak. Udalak bere argitalpenetan erabili ahal izango ditu argazkiok. Horrez gain, 200,

150 eta 100 euroko sari bana emango dute. Urriaren 20a da mugaeguna.

Zuiako Koadrilak eskualde horren gaineko argazkiak behar ditu. 400, 300 eta 200 euroko sari bana dago. Argibideak: [www.cuadrillazuia.com](http://www.cuadrillazuia.com) webgunean edo 945 43 01 67 telefono zenbakian.

### Labur

## ETBko 'Egin kantu!' saiorako aukeraketa egingo dute Arrasaten

Euskal Telebistako *Egin kantu!* musika saiorako parte-hartzaileen aukeraketa egingo dute gaur, astelehena, Monterron kultura etxean, 16:30etik 21:00etara. 8 eta 16 urte arteko ume eta gazte txoek parte har dezakete. Gustuko abesti bat ondo ikasita eramatea besterik ez dute. Horietatik abeslari finenak aukeratu dituzte. Argibide gehiago dago [www.betizu.com](http://www.betizu.com) webgunean.

Egin kantu!-ren atal bat grabatuko dute Arrasaten urriaren 26an, 17:00etan; lekua laster zehaztuko dute.

## Hamaika film emango dituzte Oñatin zineklub zikloan abendura bitartean

Urriko lehen astean hasi da Oñatiko zineklub emanaldi sorta 2006-2007 denboraldian. Hurrengo emanaldia hilaren 19an izango da, *Crash* filmarekin. 2005eko film onenaren Oskar saria irabazi zuen film horrek. Emanaldi guztiak eguenetan izango dira, 20:00etan.

Urte bukaera bitartean, beste hamar film emango dituzte: *Tapas; No sos vos, soy yo; Saraband; Buenas noches y buena suerte; Asuntos pendientes; Caché; Bienvenido a casa; El nuevo mundo; Cruzando el puente: los sonidos de Estambul* eta *Collateral*.

## Argazki erakusketa eta kontzertua izango dira urrian Inkernu tabernan

Kultura ekitaldi batzuk antolatuko dituzte Eskoriatzako Inkernu tabernako arduradunek datozen asteotarako.

Hasteko, hilaren 16an, astelehena, Elbruce mendiaren gaineko argazkien erakusketa zabalduko dute. Karmelo Oñate eskoriatzarraren argazkiak dira.

Bestalde, hilaren 20an, egubakoitza, Aitor Pedrejon barkarlariak kontzertua egingo du taberna horretan, 23:00etan. Rock eta pop doinuak lantzen ditu.

### ZINEMA I

• **Kutsidazu bidea, Ixabel** filmaren emanaldia Arrasaten Gaur, astelehena, emango dute Amaia antzokian, 20:30ean.

• **C.R.A.Z.Y. delako filma emango dute Oñatin** Gaur, astelehena, dago film hori ikusteko aukera Oñatiko kultura etxean, 19:30ean.

### KONTZERTUAK I

• **Barricadaren kontzertua joateko sarrerak, salgai** Barricada taldea zuzenean ikusteko aukera paregabea izango da hilaren 14an, eta sarrerak salgai daude Kutxan ([www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)). Betiko abestiak joko dituzte, formatu akustikoan. Amaia antzokian izango da emanaldia.

• **Bergarako musika eskolako orkestraren emanaldia** Bergarako musika eskolako orkestra Capelladesera doa, Bartzelonara. Horren aurretik, kontzertua egingo dute: etzi, eguaztena, joko dute Mariaren Lagundiko elizan, 18:00etan. Urriaren 12tik 14ra bitartean izango dira Capelladesen.

### IKUSKIZUNAK I

• **Etiopian oinez egindako bidaiaren gainekoak** *Etiopian zehar oinez* izeneko ikus-entzunezkoa egingo dute Mila Gallastegik eta Asier

Arantzabalek Bergaran, hilaren 19an, eguena, kultura etxean, 19:00etan.

• **Hainbat ikastaro Loramendi elkartearen eskutik**

Bainika, eskulan eta Beinke-Loramendi dantzaren gaineko ikastaroak antolatuko ditu Loramendi euskara elkarteak, urrian hasteko. Izenematea zabalik dago. Horretarako, jo euskara elkartera.

• **Hobetze mailako taila ikastaroa emango dute**

Hobetu gura dutenendako taila ikastaroa antolatuko du Arrasateko Tailaginen Elkarteak urriaren 17tik aurrera (30 ordu). Izena emateko, honako telefonoetara deitu behar duzue: 645 70 59 13 edo 943 79 40 79 (Felix).

### ERAKUSKETAK I

• **Pedro Luis Ormazabalaren argazki erakusketa Bergaran** Pedro Luis Ormazabalaren argazkiak egongo dira erakusketan Aroztegi aretoan urriaren 29ra bitartean. Ordu-tegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

• **Altuna Akizuren margolan erakusketa dago Miñanon** Juanjo Altuna Akizu margolari arrasatearrak *Espacios en construcción* izeneko erakusketa dauka Miñanon, Arabako

Parke Teknologikoan. Paper gainean egindako 47 lan akriliko dira, egin dituen azkenetarikoa. Abenduaren 31ra arte bisita daiteke erakusketa hori parke teknologikoko pabiloi nagusian, astelehenetik zapatara, 09:00-20:00 ordutegian.

### LEHIAKETAK I

• **Euskadiko argazki zaharren lehiaketa KZguneetan** Euskadiko 1975 aurreko argazki lehiaketa antolatuko du Eusko Jaurlaritzak, eta KZguneetatik parte har daiteke horretan. Trolley maletak, reflex kamera digital bat eta belarri berriko bideo-kamerak dira sariak. Argibide gehiago jaso ditzakezue ibarreko KZguneetan edo [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) webgunean.

### BESTELAKOAK I

• **Arrasateko Literatur Solasaldietan izenematea** Literatura solasaldiak antolatu ditu Arrasateko Udal Liburutegiak. Euskarazko taldearen lehen saioa urriaren 24an izango da, Aingeru Epaltzaren *Rock'n'roll* liburuarekin, eta espainolezkoa 17an hasiko da, Julian Barnesen *La mesa limón* liburuarekin. Izenemate epea bihar, martitzena, bukatuko da. Horretarako, liburutegira joan behar duzue.



### Zorion agurrak



ARRASATE  
**Olatz Legarda**  
Urriaren 2an, 12 urte. Zorionak! Etzeko guztien partetik.



ARRASATE  
**Unai Laskurain**  
Urriaren 4an, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Ibai Urizarren**  
Urriaren 5ean, 2 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Ibai Ruiz de Austri**  
Urriaren 7an, 3 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Julian Zubizarreta**  
Urriaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bat, etzekoen partetik.



ARRASATE  
**Lorea Ibarra**  
Urriaren 8an, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Ainhoa Garcia**  
Urriaren 10ean, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Imanol Juaristi**  
Urriaren 10ean, 3 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Maialen Sampetro**  
Urriaren 11n, 3 urte-txo! Zorionak eta muxu bat, Maialen! Etzekoak



ARRASATE  
**Antton Barrutiabengoa**  
Urriaren 29an 8 urte. Besarkada bat. Etzekoak.



BERGARA  
**Ainhoa Perez**  
Urriaren 6an, 2 urte. Zorionak amartoren lagunen partetik.



BERGARA  
**Haizea Bengoa**  
Urriaren 12an. 3 urte. Zorionak etzekoen eta bereziki Garaziren partez.



BERGARA  
**Aritz Unamuno**  
Urriaren 13an, 6 urte. Zorionak eta muxu haundi bat etzekoen partetik.



ARETXABAETA  
**Lore Lezeta**  
Urriaren 13an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Maren eta etzekoak.



ANTZUOLA  
**Patxi Olabarria**  
Urriaren 8an, urtebetetzea. Zorionak Patxito Maddi eta Eritzen partetik.

### Jaiotakoak



**Izaro Herboso Madina**  
Bilbo • 3,300 kg. Irailak 29. Gurasoak: Xabier (Bilbo) eta Leire (Arrasate). Argazkian Izaro amarekin.



**Ilargi Ortega Arrieta**  
Donostia • 3,430 kg. Irailak 25. Gurasoak: Igor (Hondarribia) eta Amaia (Arrasate) Argazkian, umea amarekin.



**Ibon Arevalo Abascal**  
Bergara • 3,300 kg. Urriak 4. Gurasoak: Sonia (Bergara) eta David (Bergara). Argazkian umea kuman bapo lo.



**Nahikari Lozano Viove**  
Aretxabaleta • 3,800 kg. Urriak 4. Gurasoak: Carol (Aretxabaleta) eta Txema (Arrasate). Argazkian umea kuman.



**Noa Iglesias Gartzia**  
Eskoriatza • 3,100 kg. Urriak 4. Gurasoak: Martina (Eskoriatza) eta Oscar (Arrasate). Argazkian umea amarekin.



**Amaiur Barrera Urrutikoetxea**  
Arrasate • 3,730 kg. Urriak 4. Gurasoak: Irati (Miarritze) eta Iñaki (Arrasate). Argazkian umea lotan agertzen da.



**Ainhoa eta Maialen Anduaga Elortza**  
Oñati • 2,250 kg. eta 2,450 kg. Urriak 4a. Gurasoak: Eva (Oñati) eta Pedro (Oñati). Argazkian amarekin.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

ASTELEHENKO GOIENKARIAren bidez!

Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

### Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tartea  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**

**ARRASATE IRRATIA**

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7  
'Igo autobusera' | 10:30

**Maite Aristegi elkarrizketatuko dute**

18/98+ plataformako kideari elkarrizketa egingo diote gaur Arrasate Irratian. Atzo Altsasun izandako Bateginik egunaz jardungo dute. Horrekin batera, epaiketaren azken berriez eta autoinkulpazio kanpainaz ere arituko dira.

**Oñati Irratia**

FM 107.4  
'Eguerdiko saioa' | 12:15

**San Migel Parrokiako berritze lanak**

San Migel Parrokian berritze lanak egingo dituzte datozen hilabeteotan. Kanpandorra, klaustroaren kanpoaldea eta atari nagusia berrituko dituzte, besteak beste. Aurrekontua eta egingo diren lanak aztergai gaurko irratsaioan.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4  
'Faktoria' | 10:05

**Adingabeak hartzen dituzten zentroak**

**Radio Euskadi**

FM 98.2  
'Boulevard' | 09:30

**Joseba Azkarragari elkarrizketa**


**Herri Irratia**

FM 99.8  
'Loiolako porrusaldan' | 12:05

**Danbaka musika lehiaketa**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 9



**Soraluze-Bergara krosa 'Harmailatik' saioan 20:47 eta 22:15**

Soraluze eta Bergara arteko krosaren bigarren ekitaldia jokatu zen atzo. Lasterketako irudiak Julen Iriondok aurkeztutako saioan.

**13:15** Emisio hasiera.  
**13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.  
**13:45** Gaurkoak.  
**13:47** Behazulo.  
**14:15** Eltze beroa.  
**14:45** Albiste aurrerapena.  
**15:00** Munduari bueltaka.  
**15:45** Gaurkoak.  
**15:47** Ilunpean.  
**16:15** Klip@.  
**16:45** Albiste aurrerapena.  
**17:00** Erreportajea.  
**17:30** Motzean.  
**17:45** Gaurkoak.  
**17:47** Berbaire.  
**18:15** Klip@ eta MKT.  
**18:45** Albiste aurrerapena.  
**19:00** Klip@.  
**19:15** 16 mm.  
**19:45** Berriak.  
**20:15** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.  
**20:45** Berriak.  
**21:15** Harmailatik.  
**21:45** Gaurkoak.  
**21:47** Gatz eta berakatza.  
**22:00** MKT.  
**22:15** Harmailatik.  
**22:45** Berriak.  
**23:15** Erreportajea.  
**23:45** Gaurkoak.  
**23:47** Izan ziren.  
**00:00** Eltze beroa.  
**00:30** Emisio amaiera.

Martitzena, 10



**'Berbaire': politikaren inguruko tertulia 22:15**

Gaurko gonbidatuak Elena Laka, Mikel Usabiaga, Mikel Irizar (irudian) eta Joseba Mujika izango dira. Gorka Etxabe kazetariaren gidaritzapean.

**13:15** Emisio hasiera.  
**13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan.  
**13:45** Gaurkoak.  
**13:47** Jazz mintegia.  
**14:15** Klip@.  
**14:45** Albiste aurrerapena.  
**15:00** Elkartasunaren bideak.  
**15:45** Gaurkoak.  
**15:47** Harmailatik.  
**16:15** Klip@.  
**16:45** Albisteak.  
**17:00** Jazz mintegia.  
**17:30** Danbaka.  
**17:45** Gaurkoak.  
**17:47** Behazulo.  
**18:15** Eltze beroa.  
**18:45** Albisteak.  
**19:00** Klip@.  
**19:15** Harmailatik.  
**19:45** Berriak.  
**20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan.  
**20:45** Berriak.  
**21:15** 16mm.  
**21:45** Gaurkoak.  
**21:47** Jaiak 2006: Maritxu Kajoi.  
**22:15** Berbaire.  
**22:45** Berriak.  
**23:15** Behazulo.  
**23:45** Gaurkoak.  
**23:47** MKT.  
**00:00** Eltze beroa.  
**00:30** Emisio amaiera.

Eguaztena, 11




**Zientzia eta teknologia 'Teknopolis' saioan 15:00, 18:15 eta 21:15**

Elhuyarrek ekoiztutako eta Aitziber Agirrek aurkeztu duen saioa. Zientziaren eta teknologiaren gaineko kontuak jorratuko dituzte.

**13:15** Emisio hasiera.  
**13:20** Marrazki bizidunak: **13:45** Gaurkoak.  
**13:47** Berbaire.  
**14:15** Danbaka.  
**14:45** Albiste aurrerapena.  
**15:00** Teknopolis.  
**15:45** Gaurkoak  
**15:47** 16mm.  
**16:15** Klip@.  
**16:45** Albiste aurrerapena  
**17:00** Jaiak 2006  
**17:30** Zera dio.  
**17:45** Gaurkoak.  
**17:47** 16 mm.  
**18:15** Klip@.  
**18:45** Albiste aurrerapena.  
**17:00** Berbaire.  
**17:30** Motzean.  
**17:45** Gaurkoak.  
**17:47** Sustraiak.  
**18:15** Teknopolis.  
**18:45** Albiste aurrerapena  
**19:00** Klip@  
**19:15** Erreportajea.  
**19:45** Berriak.  
**20:15** Marrazki bizidunak: **20:45** Berriak.  
**21:15** Teknopolis.  
**21:45** Gaurkoak.  
**21:47** Gatz eta berakatza.  
**22:00** Zera dio  
**22:15** Ilunpean.  
**22:45** Berriak.  
**23:15** Elkartasun bideak.  
**23:45** Gaurkoak.  
**23:47** Izan ziren.  
**00:00** Emisio amaiera.

Eguena, 12



**Marrazki bizidunak gaztetxoendako 08:05 eta 17:45**

Goizetik, gaztetxoei zuzendutako marrazki bizidunak ikusteko aukera duzue gaur GOITBn: *Snorkeldarrak*, *Nonochan* eta *Bihurkorrak*.

**08:00** Emisio hasiera.  
**08:05** Marrazkiak.  
**11:30** Ilunpean.  
**12:00** Eltze beroa.  
**12:15** 16mm.  
**12:45** Iparorratza.  
**13:15** Erreportaia.  
**13:45** Harmailatik.  
**14:15** Klip@.  
**14:30** Astekoak.  
**14:45** Maritxu 06.  
**15:15** Izan ziren.  
**16:00** Erreportaia.  
**16:30** Gatz eta berakatza.  
**16:45** MKT.  
**17:15** Elkartasunaren bidean.  
**17:45** Marrazkiak.  
**19:30** 16 mm.  
**20:00** Behazulo.  
**20:45** Ilunpean.  
**21:15** Teknopolis.  
**21:45** Jaiak 2006: Maritxu Kajoi.  
**22:15** Izan ziren.  
**22:30** Astekoak.  
**22:45** 16mm.  
**23:15** Erreportaia.  
**23:45** Emisio amaiera.

Egubakoitza, 13



**Azken musika bideoklipak 11:00, 13:45 eta 18:45**

Aspaldiko eta gaur egungo musikarekin gozatzeko aukera duzue MKT saioan. Besteak beste, rock taldeen azken bideoklipak ikusgai.

**08:00** Emisio hasiera.  
**08:05** Marrazkiak.  
**11:00** Klip@.  
**11:15** Astekoak.  
**11:30** Iparorratza.  
**12:00** Maritxu Kajoi 06.  
**13:15** Elkartasun bideak.  
**13:45** Klip@.  
**14:15** Marrazkiak.  
**15:45** Ilunpean.  
**16:15** Behazulo.  
**16:45** 16mm.  
**17:15** Astekoak.  
**17:30** Marrazkiak.  
**18:45** Klip@.  
**19:15** Iparorratza.  
**19:45** Erreportajea.  
**20:15** Zera dio.  
**20:15** Zera dio.  
**20:30** Ilunpean.  
**21:00** 16 mm.  
**21:30** Behazulo.  
**22:00** Izan ziren.  
**22:15** Maritxu Kajoi 06.  
**23:00** Teknopolis.  
**23:45** Emisio amaiera.

**Kamera aurrean**



**"PPko zinegotzia behin betiko isildu dadila. Ikasi dezala Oñati zer den eta zela bizi garen. Errespetua eskatzen diot"**

LOURDES IDOIAGA | OÑATIKO ALKATEA  
Berriak, 2006-10-05



**"Festarako horrelako soinekoak behar dira: mahukarik gabek eta eskotearekin. Bestela urte osoan tapatuta ibiltzen gara..."**

ROSARITO ZEZIAGA | ZEZIAGA DENDAKOIA  
Berriak, 2006-10-05

**Maritxu Kajoi**

JAIK 2006  
Martitzenean, urriaren 10ean,  
21:15ean

SAIO BEREZIA

**Goitb**  
Goiena Telebista  
*Ikustekoa!*



Urriaren 9a: 102 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, urriak 9, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

**24 euro**

2006 bukaera harte.

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

102  
zozketa

saridunak

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Gonbidapen bat Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridunari bi emango zaizkio).

- Imanol Aginagalde Aranzabal (Aretxabaleta)



## Urriaren 16ko sariak



- Urriaren 20an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAko lehen kontzertua ikusteko zortzi gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).





## Hamarrekoa

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA | ARGAZKILARIA

# "Neuri ateratzen dizkidaten argazkietan, asko begiratzen diot itxurari"



Oihana Elortza

**1.** Ez zara Debagoienekoa baina ondo uztartu zara ibarrrera. Lanera etorri nintzen Arrasatera orain 27 urte. AEKn egiten nuen egun erdia eta udaletxean beste erdia. Zortzi urtez Arrasateko Udaleko itzultzailea izan nintzen eta gero euskara teknikari plaza atera nuen.

**2.** Euskal munduan ibili zara beti? Donostian ezagutu nuen euskal mundua eta hona etorri nintzeanean ere euskaraz bizitzen jarraitu nuen.

**3.** Argazkilari moduan ere ezagutzen zaitugu. Hori ze da dudan zaletasuna. 14 urte nituenean etxeko kamera erabiltzen hasi nintzen. 17rekin Yashika etxeko kamera erosi nuen, modan zegoen marka zen eta. Harrez gero, Minolta eta Nikon izan ditut reflexetan eta orain Canon digital bat dut.

**4.** Bazara teknologia berrien zalea? Ez horrenbeste. Egia esan, ez naiz oso ondo moldatzen, baina beharregatik erabiltzen ditut teknologia berriak ere.

**5.** Nik ez dut blogik, eta zuk bi dagoeneko. Hori gustatzen zait. Beste batzuen blogetan sartzeko ohitura ere badut.

**6.** Ahosabai fina ei duzu. Egia da? Jatun ona naiz, bai. Sukaldean ere ibiltzen naiz. Hainbat gauza ondo prestatzen ditut, baina ez naiz oso abila edo sukaldezalea. Hala ere, gero eta gehiago ibiltzen naiz.

**7.** Ze xarma du Iparraldeak? Natura, batetik. Ondo zainduta dago, masifikatu gabe. Horrez gain, exotikoa ere bada, euskaragatik edo.

**8.** Argazkilari ona bai, baina zer moduzko modetara zara? Ez zait asko gustatzen niri ateratzea argazkiak, baina ez dut ezetz esaten. Alde horretatik, baina, asko zaintzen dut itxura: nahiago dut ondo dagoen artxiboko bat sartzea, momentuko baina gaizki dagoena baino.

**9.** Lanleku berria izango duzu laster, kultura etxe berria. Zer eramango duzu bulego berrira? Oraingo bulegoan dudanez argazki bat eta Bernardo Atxaga idaz-

Gasteizkoa da Jose Felix Diaz de Tuesta. Argazkilaritza da bere zaletasuna eta Arrasate eta Oñatiko argazki liburuetan ateratu ditu, besteak beste, Arrasate Argitan taldearekin. Lanbidez, Arrasateko Udaleko euskara teknikaria da. Bera euskaldun berria da eta gustatzen zaio Debagoieneko euskara, "esamolde biziak eta aberatsak" dituelako. Gogorrena, Arrasateko euskara egiten zaio.

learen bi gonbidapen, adibidez. Altzariak berriak izango ditugu.

**10.** Hiru astean behin zuk ateratako argazkia agertzen da Goienkaria-ko lehiaketan.

Zein da hurrengoaren erantzuna? Bakar bakarrik esango dizut Aramaion ateratakoa dela eta Anboto azpian dagoen auzo bat agertzen dela. Hortik aurrerakoak zuk zeuk igarri beharko dituzu.



### Biharamuna

Leire Lardizabal

## Maritxu alkate!

Brabo, brabo, brabo!! **Santamas komisiñokuei...** ai barkatu, **Maritxu Kajoi komisiñokuei.** Urte bat gehiagoz Ama birjinaren ikonoak puritanotasuna saltzeko bakarrik ez duela balio erakutsi duzue. Jai herrikoiek folklorismoan jausi beharrik ez dutela, festek herrikoiak izateko herritarrek maitatu behar dituztela, herritarren gogotik ateratakoak izan behar dutela ikustarazi duzue berriz.

Aspaldiko partez Arrasatear denak zerbaitetan ados jarrita, mundu guztia eskapularixua, egun Euskal Herrian ilegalizatu barik dagoen logo bakarretakoa, koloketik zintzilik jarrita zebilen... Tira, instituzio autoritarioen artean konparatzen hasiz gero, oraindik ere Eliza santuak Audientzia Nazionalari pultsua irabazten diola esango nuke. Tratu bereziren bat eginik izango duzue Vaticanoarekin. Bestela nola uler daiteke gure Herriko plaza leporaino beteta dagoela presoak etxeratzea eskatzea, eta ertzaintzaren furgoneta bakar bat ez ikustea inguruan? Ai Maritxu! Abiadura Handiko Trenea nahi ez dugula ulertu eta abiadura txikikoa ekarri zenigun. Herritarroi zuk beste kasu egingo baligute poltsikoak betetzen hari diren haiek, herri iraunkorragoa izango litzateke geurea. Baina kontuz ibil zaitezke egiten dituzun mirariekin...zeu ere martxa honetan disidente bihurtu, lista arraroren batean sartu eta kondentuko zaituzte eta. Datorren hauteskundeetarako zeu proposatuko zaitut alkate Maritxu... herritarra, elegantea, alai eta Elizaren bedein-kazioaz gainera!

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS)

**LOGOAK** (SMS 1)  
**KODEA**

**5767**  
zenbakira

SMS bakoitzeko:  
**1,2 € + BEZa**

**smsoinu**

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**Trikitixa**  
Bexamela ta pastela (Maizta ta leñak) | **BEXAMELA**  
Bokespok (Kopa Junkera) | **BOKESPOK**  
Hik lan eta nik jai (Tagia) | **HIK**  
Issas onzi baten (Kaxarri) | **ISSAS**  
Kupela (Eskola eta Larriaga) | **KUPELA**  
Mila galdera (Abitz/Midori) | **MILAJ**  
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**  
Ny Hirahira (Kopa Junkera) | **HIRA**  
Txanpon baten truke (Abitz/Midori) | **TXANPON**

**Himnoak**  
Eibar | **EIBAR**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Real | **REAL**  
Real Union | **UNION**

**Herritxikiak**  
Bagare | **BAGARE**  
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

**Ikusi Mendizaleak** | **MENDI**  
Pintxo-pintxo | **PINTXO**  
San Simon eta San Judas | **SAN**

**Jaietakoak**  
Artillerer dale fuego | **ARTILLERO**  
Mangia Kopa Junkera | **JAJA**  
San Fermín | **FERMIN**  
San Martzialetako alardea | **SAN MARTZIAL**

**Folk**  
Arratsalde honetan (Sorotan Bete) | **SOROTAN**  
Bai euskarari (Pantxo) | **BANI**  
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**  
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**  
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**  
Euskal Herria Euskaraz (Oskorri) | **EUSKAL**  
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | **EUSKALDUN**  
Ez da posible (Ruper Ordorika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Oskorri) | **FURRA**

1,2,3,4...Real! | **REAL**  
Alboka | **ALBOKA**  
Athletic leue! | **IEUP**  
Buztan bertsoa | **BERTSO**  
Hartu...Aitaren ta semea... | **AITAREN**  
Hartu...Ansar | **ANSAR**  
Hartu...Argentinarra | **ARGEN**  
Hartu...Miamol | **MIAMOL**  
Hartu...Miamol | **MIAMOL**  
Irrentzia | **IRRINTZI**  
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**  
Milazu! (pilota) | **MILAZU**  
Suprimu | **SUPRINU**  
Tobera | **TOBERA**  
Txalaparta | **TXALA**  
Txanbela | **TXANBERA**  
Txoobtx | **TXOBTX**